

405 zenbakia. 2000ko apirilaren 7a
JARDUN ELKARTEA

Bergarako astekaria

Berrigara

Atzegi

Berrogehi urte arlo denetan
integrazioa bilatzen

Handle
Tragegriff

INA
Wälzlager
Rolling Bearings
Roulements
Cuscinetti volventi
Rodamientos



SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK

Ibargarai 11-13 BERGARA
Telefona eta faxa: 943 76 70 58






UGARTE

A R O Z T E G I A

Apainketa • Altzariak

San Juan, 1 • (Gasolindegia ren parean) • BERGARA • Tel./ Faxa: 943 76 54 91

Bideoetan **nobedade** denak dauzkagu!



Eta Iralan, DVD ere badaukagu



- CD baten neurriko euskarrian
 - Irudia VHSa baino bi aldiz garbiagoa da
 - Soinua infinituki garbiagoa da
 - Hizkuntza, norberak aukera dezake
 - Pantaila panoramikoan ere ikusi daiteke
 - Funtzio osagarriak
- ZORAGARRIA IZAN LITEKE!**



ZINEA ASMATU
ZENETIK GAUZA
HANDIENA

IRALA

Bideoak

VIDEOMATIC
Plus

Hatzamar bat mugitzeko gauza bazara, Videomatic erabiltzeko ere bai



Kruz Gallastegi 7. Telefonoa: 943 76 21 81. Faxa: 943 76 73 33. E-maila: video_irala@jet.es



Ormarik gabeko laberintoa

Jon Altuna / Kazetaria

Ez da erraz aurkituko Euskal Herriko laberinto politikotik aterako gaituen bide ona. Batzuk uste dugu gaur egun eraginkorragoa dela euskaldunon batasuna eta Udalbiltza bezalako erakundeei eustea, edozein ekintza armatu baino; beste batzuek euskaldunon eskubideak zapaltzen ari direla eta justiziaren aldeko borroka dela hau; haiek antimilitarismoaren garaian borroka armatuak ez duela zentzurik; kartzelan dauden lagunek, aldiz, herri hau beti izan dela borrokalaria eta eraso guztien aurrean defenditu dela... Nik uste dut bide berriak aurkitu behar direla eta badituz proposamen zoro batzuk.

Bat. PSEko gazteek autodeterminazio eskubidearen bidea onartzen bada Kontutuzioan aldaketaren bat egin beharko dela erabaki duten garaian, nik Euskal Herri osoan, iparraldean eta hegoaldean, mendebaldean eta ekialdean, hauteskundeak egiteko proposatuko nuke, ofizialak izango ez badira ere, eta hoietan alderdien ordezkariak parte hartzen badute askoz ere hobeto gainera. Alderdi nazionalista espa-

ñolek (PP-PSOE) ez dute parte hartuko, noski, eta oztopo ugari jarriko dituzte, baina egin beharko lirarteke eta garrantzi handia izango luke hortik aterako parlamentuak.

Bi. Garaia da futboleko euskal liga sortzeko. Bergara hobe dago Espāñako hirugarren mailan baino, euskal Ligako bigarren mailan. Athletik, Real, Osasuna, Alaves eta Eibarko bigarren taldeekin batera, Baiona, Barakaldo, Biarritz, Durango, Hernani, Irun, Tolosa eta Tuter bezalako herri handietako lehen talde-

ekin osatu daitezke bi edo hiru maila. Rugbian, saskibaloian eta beste kirolatan ere gauza bera egin daitezke eta egunen batean onartuko gaituzte Europan.

Hiru. Eskatuz gero, banatzen da jadanik Euskal Nortasun Agiria euskaldunon artean, ofizialki ez bada ere noski, eta proposatuko nuke euskaldunak DNIA ez dezatela aldean eraman. Ez gaituzte danok kartzelan sartuko, eta seguraski isunen bidez jendea izutzen saiatuko badira ere, ejerzitoaren eta soldaduskaren aurkako borroka, hein handi batean gazte euskaldunoi esker, ia ia irabazi bada ENAren aldekoa ere irabazi daitezke.

Lau. Euskararen inguruan borroka handia dago egiteko, arlo guztietara eraman behar da euskara, eta arlo guztiak ekarri euskarara. Askotan errespeturik ere ez dute euskaldunok eta adibidez jatetxe batean menua euskaraz irakurtzerik ez bada altxatu eta joan egin beharko ginarteke eta faktura euskaraz ekartzen ez badute, batere ez pagatu, etxera faktura euskaraz bidali artean behintzat.<

"Batzuk uste dugu gaur egun eraginkorragoa dela euskaldunon batasuna eta Udalbiltza bezalako erakundeei eustea, edozein ekintza armatu baino"

barruan



Eugenia Caceres

"Pakea eta 3. mundua"ko kidea

"Guatemalan ez da esklabu beltzik, indigenak esklabizatu zituztelako"

8.



Ion Aranzabal

Korrikalaria

"Lasterketa motzetan, azkarretan, luzeetan baino hobeto moldatzen naiz"

23.



Ane M. Zabala

Jarduneko begiralea

"Asko ikasi dot 'Bergara ezagurtzen' lehiaketan; bitxikerixa asko jakin dot"

29.

AGENDA ETA ZERBITZUAK

Farmaziak

Eguakitza 7:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Zapatua 8:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Domeka 9:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Astelehena 10:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Martitzena 11:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Eguaztena 12:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Eguena 13:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Ogia

Domeka 9: Konde.

zozketak

BONO LOTO

Eguakitza 31

9-12-13-26-44-46 (osag.47/itz.8)

Astelehena 3

3-14-15-20-21-44(osag.31/itz.0)

Martitzena 4

9-13-18-24-29-45 (osag.31/itz.0)

Eguaztena 5

12-14-16-24-27-45 (osag.34/itz.8)

PRIMITIVA

Zapatua 1

3-7-8-24-28-44 (osag.26/itz.0)

Domeka 2 Saritzarra

1-11-12-16-19-21 (osag.38/itz.7)

ONCE

Eguakitza 31: 70.264 (121 seriea)

Domeka 2: 88.208 (057 seriea)

Astelehena 3: 69.546

Martitzena 4: 52.538

Eguaztena 5: 88.768

hau be badou?


Estralurtarrak behatzen

AEBetako Koloradoko emakume bati, Judy Messoline-ri, Objektu Hegalari Ezezagunak (OHE) behatzeko bi dorre eta OHEak lurreratzeko pista eraikitzeke proiektua onartu diote. Messolinek dei mordoia jasotzen dihardu, dorreak eraikitzen ditueneko behatze lanetan parte hartu nahi duen jende ugari dago eta.

Elhuyar


Eguraldia

Igeldoko metereologi behatokia



Zapatua 8

Zeru ia-ia garbi goizean; arratsalderako hodeiak sortuko dira. Temperatura gora apur bat. Hegoekialdeko haizea.



Domeka 9

Zeru estalia eta zaparradak izango ditugu egun guztian zehar. Temperaturak beherantz egingo du. Haizeak ekialdetik joko du.

Ilargiaren aldiak



Ilgora: apirilak 11



Ilbete: apirilak 18




Ilbehera: apirilak 26




Ilberri: maiatzak 4

Eguzkia

Domeka, apirilak 9



Sortu: 07:48



Gorde: 20:50

Temperaturak eta euria Bergaran

San Juan

Luis Mari Agirrek emandako informazioa

Martxoak 30, eguena
 Martxoak 31, eguakitza
 Apirilak 1, zapatua
 Apirilak 2, domeka
 Apirilak 3, astelehena
 Apirilak 4, martitzena
 Apirilak 5, eguaztena

Temperatura maximoa	Temperatura minimoa	Euria
14 °C	1 °C	4,6 l/m ²
12 °C	4 °C	0,2 l/m ²
17 °C	2 °C	-
16 °C	8 °C	1,8 l/m ²
16 °C	10 °C	9,4 l/m ²
12 °C	8 °C	10,7 l/m ²
8 °C	6 °C	3,1 l/m ²



Mikel Alberdi
7an urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Rosa Maria Cuadrado
7an 38 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Aitor Conti
12an 8 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak eta lagunak.



Ane Zangitu
12an 9 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak, anaia eta lehengusuak.



Aitor Zurro
12an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Miren Fernandez
12an 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta lehengusu-lehengusiñak.



Iñigo San Jose
7an 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Samira Achabar
7an 15 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Oskar Perez
11n 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Lander Ugarte
11n 8 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak.



Tina Mendez
7an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Senarra eta semea.



Idoia Regorigo
11n 5 urte.
Urte askotarako!
Ekaitz eta familiakoak.

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIAK

SOS deiak	112
DYA	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 62
Udalzaingoa	943 77 91 06
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitalea	943 03 53 00
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 49
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23

GARRAIOAK

Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 50
RENFE	943 28 35 99

UDALA

Udaletxea	943 77 91 00
Udal Artxiboa	943 77 91 32
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 62
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 92
Erregistroa	943 76 13 15
Jardun	943 76 36 61
Jubilatuena Etxea	943 76 21 40
Postetxea	943 76 26 85

URTEURRENA

Maria Karmen
Mendizabal Errasti

Lehen urteurreneko meza
domekan, apirilak 9,
goizeko 11:30etan, Santa Marinaran.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Julen Arzelus Arroiababe
"Txarriduna"

Lehen urteurreneko meza
domekan, apirilak 9,
goizeko 11:30etan, Santa Marinaran.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Teresa
Luarizaristi Iñarra

Lehen urteurreneko meza
domekan, apirilak 9,
goizeko 11:30etan, Santa Marinaran.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Apolonia
Iturbe Maiztegi

Lehen urteurreneko meza
domekan, apirilak 9,
goizeko 11:30etan, Santa Marinaran.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

jaiotakoak

BERGARA
Iker Poza Abando
Martxoak 30

hildakoak

BERGARA
Markos Larrañaga Txintxurreta
Martxoak 29, 89 urte
Candida Aldekoa Larrañaga
Apirilak 5, 74 urte

zorion agurrak



Beñat Landa
11n 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Maite Rementeria
7an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Leire Ugalde
7an urtebete.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Garazi Larrea
13an 13 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Edurne Beitia
7an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Leire eta
familiakoak.

*Hurrengo alean, Aste Santuko oporraldia
datorrela eta, bi astetako zorion agurrak
argitaratuko ditugu:*

apirilaren 14tik 27ra
bitartekoak.

URTEURRENA

Basilio
Unamuno Lizarralde

Lehen urteurreneko meza
domekan, apirilak 9,
goizeko 11:30etan, Santa Marinaran.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Victoria
Eguren Agirrezabal

Lehen urteurreneko meza
domekan, apirilak 9,
goizeko 11:30etan, Santa Marinaran.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

ANTZERKIA

► Eibarko XXIII Antzerki Jardunaldiak: gaur, eguakitza, **"Novecento"**; bihar, zapatua, **"Caricias"**; astelehenean, hilak 10, **"Piano & Forte"** eta martitzenean **"Manolito Laubegi"**. Emanaldi guztiak 20:30etan Unibertsitate Laboralean.

► **La tropa** talde txiletarraren **"Viaje al centro de la tierra"** gaur, egukitza, 22:30etan Elorrioko Arriola aretoan. Datorren eguakitzean, ordu eta toki berean, **"Cita con la luna"**, **Gorakada** taldearekin.

MUSIKA

► **Elgoibarko** Inazio Bereziartua Musika Eskolako ikasle- en emanaldia gaur, eguakitza, 19:30etan Zabalotegin.

► **Jam**. Bihar, zapatua, **Grave Digger eta Iron Savior**, 21:30etan. Datorren zapatuan, hilak 15, **Doctor Deseo**.

► **Udal Musika Bandaren** kontzertua domekan, 12:30etan Udal Pilotalekuan.

► **Go-Jam**. Domekan, hilak 9, **Jesus Martyr eta Embryo Greed**, 21:30etan. Eguenean, hilak 13, **Fun People eta Nil**, 22:00etan.

► **Coro de la Escuela Superior de Lenguas** (Cordoba, Argentina) eta

ERAKUSKETA

Pilar Muñozen margoak

- Apiril bukaerara arte
- Nahikari tabernan

Aste honetan Pilar Muñoz bilbotarra- ren margo erakusketa zabaldu da Nahikari tabernan. Muñozek 16 koadro zintzilikatu ditu Nahikariko paretetan, gehienak formato txikikoak, eta paisaiak dira protagonista nagusiak. Bergarako hainbat erai- kuntza, kale eta baserri margotu ditu Muñozek, argazkietan oinarrituz. Era berean, bodegoiak eta Euskal Herriko beste toki batzuetako paisaiak ere ikusi ahal izango dira apirilaren amaierara arte ikusgai izango den erakusketan. Pilar Muñozek 20 urtetik gora dar- matza margolaritzan eta gaur egun pintura klaseak ematen ditu Bilbon duen estudioan. Bere iloba baten bitartez, Nahikarin bere lana erakuste- ko aukera sortu zitzaion; "ez dut Bergara gehiegi ezagu- tzen, baina erakusketa bertan izanik, nahiago nuen Bergara- ko motiboak lantzea koadro- tan eta, horregatik, argazkiak

izan dira margo-lanen abiapuntu. Toki ederrak daude zuen herrian eta primeran pasatu dut erakusketarako lan hauek egi- ten" diosku Pilarrek. Besteak beste, Rekal- de jauregia, San Martzial, Goenkale, Usondo, Unzeta etxea edota Zubietako irudiak landu ditu.

Orain dela gutxira arte Bilboko Larrea galerian Pilar Muñozen erakusketa ikusgai egon da eta nahiko ondo joan zaiola dio, "lan batzuk saltzea lortu dut. Galeriatan erakustea ez da batere erraza izaten, eta orain taberna batean egokitu zait erakus- keta egitea. Ikusleek nire lanekiko intere- sa azaltzeko balio badu, primeran. Ikusi behar erakusketak zelako harrera izaten duen".



Argazkian, Pilar Muñozen margolanetako bat.

Goikobalu abesbatzak dome- kan, hilak 9, 19:30etan Arrasateko Amaia antzokian.

ERAKUSKETAK

► **"Zaborretatik ateratako jostailuak"** erakusketa apiri-

laren 10etik 16ra Kultur Etxean, Debagoieneko Mankomunitateak antolatuta.

► **Daniel Laskurainen mar- goak** Zarauzko Torre Luzea aretoan, domekara arte, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

► **Pello Alberdiren margo- ak** Iruñeako Molmar galerian (Curia, 18), apirilaren 19ra arte.

LEHIAKETAK

► **Pentekoste jaietako kar- tel lehiaketa**. Kartel bakoitza-

ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK, EGUNEROKO MENUA, GOSARIAK, BAZKARIAK...

Masterreka 8 ☎ 943 76 53 12

IBARGYREN PENTSYAK

BIONA pentsuen biltegia, BIOTER produktuak, haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialak

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 / 908 77 64 91

ren neurria 60x42 cm.koa izan-
go da eta derrigorrezko testua,
"2000ko Pentekoste Jaiak
Bergaran". Irabazleak 100.000
pezetako saria eskuratuko du.
Lanak entregatzeko epea maia-
tzaren 2an bukatuko da.
Argibideak Kultur zerbitzuan,
943 77 91 58 zenbakian.

► **Txorimalo lehiaketa**
Erramu Zapatuan, apirilaren
15ean, Jardunek antolatuta.
Izen-ematea apirilaren 12ra
arte izango da zabalik.
Adinaren arabera hiru talde
bereiztuko dira: 14 urtetik
beherakoak, 15-50 urte arteko-
ak eta 60tik gorakoak.
Txorimaloak ferixan ikusgai
egongo dira, 11:00etatik aurre-
ra. Argibideak Jardunen, 943
76 08 19 zenbakian.

IKASTAROAK

► **Literatura tailerra** Juan
Martin Elexpuru idazlearen
eskutik, maiatzaren 4tik ekai-
naren 1era bitartean
Arrasateko Monterron jaure-
gian. Klaseak astelehen eta
eguenetan, 19:00etatik
21:00etara. Argibideak Arrasa-
teko udaleko Gazteriaren
batzordean. 943 77 00 65.

DEIAK

► **Donostiako Elizbarrutiak**
antolatuta, "Jesukristorekin
hobeto" lelopean, Arantzazura
ibilaldia egingo da apirilaren
15ean. Bergaratik autobusak
aterako dira 8:40an autobus

geltokitik. Izen-ematea (1.100
pezeta) apirilaren 12a baino
lehen Garitano estankoa
(Zubiaurren), Agirrebeña den-
dan (San Antonion), Zatoian
(Barrenkalean) eta Mugertzako
Urriategi estankoa.

► **Pol-Pol Mendizale
Taldeak** Aste Santurako gaz-
teei zuzendutako akanpada
antolatu du Huescan, Estóseko
aterpetxean. Izen-ematea Pol-
Polen, apirilaren 13ra arte.
Plaza mugatuak. Argibideak
Pol-Poleko bulegoan, 943 76
48 51 zenbakian.

► **EAJ.** Ohiko Uriburu
Batzarra eguenean, hilak 13,
20:00etan Batzokian.

► **Fatimara peregrinazioa**
maiatzaren 2tik 6ra bitartean,
frantziskotarrek antolatuta.
Fatiman egunero Eukaristiaren
ospakizuna, Gurutze-bidea eta
Errosario santua izango dira.
Prezioa 36.000 pezetakoa izan-
go da. Argibide gehiago 943 78
09 51 zenbakian.

► **Euskal presoak Euskal
Herrira** taldeak dei egiten die
taldean parte hartzeko intere-
satuei, martitzenero 20:00etan
Kultur Etxean egiten den bile-
ran agertzeko.

KINTADAK

► **1935ean jaiotako baz-
karia** Azpeitxi jatetxean maia-
tzaren 6an. Txartelak Azpeitxi
jattetxean bertan edo Lazpiur
harategian.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

Yoyes

Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen
eguna: 19:30.

Toy story 2

Zapatua: 17:00, 19:30.
Domeka: 17:00.

Tiempo de amar, tiempo de morir

Eguena: 21:30.

ARRASATE. Alai zinema

Secuestrando a la Srta. Tingle

Eguakitza: 22:00.

Mandibulas

Zapatua eta domeka: 17:00.

La milla verde

Zapatua: 18:45, 22:00.

Domeka: 18:45, 22:00.

Astelehena: 18:45, 22:00.

Martitzena, ik. eguna: 18:45, 22:00.

ARRASATE. Amaia

Beso de hermano

Eguena: 21:30.

EIBAR. Unzaga

Julia Roberts es Erin Brockovich

Eguakitza: 22:15.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto

Huracan Carter

Eguakitza: 22:15.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

ELORRIO. Arriola

Una historia verdadera (aurretik

Torre laburmetraia)

Zapatua: 22:30.

Domeka: 20:00.

Astelehena: 20:00.

Tarzan

Domeka: 17:00.

La vendedora de rosas

Eguena, zine-kluba: 20:00.

YOYES

Zuzendaria: Helena Taberna.

Aktoreak: Ana Torrent,
Ernesto Alterio, Florence Pernel.
≥13 urte

"Yoyes", ETako kide izanda-
koaren bizitza oinarritutako
filmea errodutu da Helena Ta-
bernak. Mexikon erbesteratu-
ta egon ondoren, bere bizi-
modua berrantolatzen saiatu-
ko da Euskal Herrian, baina
itzulera ez da erraza izango
eta bere lagun ohiek traidore-
tzat joko dute...

TCY STORY 2

Zuzendaria: John Lasseter.

ADIN GUZTIAK

Lehen zatiaren arrakastari eu-
tsiz, hemen ditugu berriz
Buzz Lightyear, *Woody*, *Jessie*,
Slinky eta gainontzeko jostai-
lu maltzurak, haur eta nagu-
sien gozamererako. Efektu
berezi bikainekin egindako
filme honetan umorea da na-
gusi, protagonistek egoera
benetan bitxiei aurre egin be-
harko dietelarik.

TIEMPO DE AMAR, TIEMPO DE MORIR

Zuzendaria: Douglas Sirk.

Aktoreak: John Gavin,
Lilo Pulver. ≥13 urte

Forum Cinematographe talde-
ak antolatutako zikloarekin ja-
rraituz, Douglas Sirk zuzenda-
riak 1957. urtean errodututako
filmea jatorrizko bertsioan
(gaztelarako azpitoluekin)
ikusteko aukera. Bigarren
munduko gerratean, Aleman-
ian, girotutako amodiozko
istorio bat.

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

Lazkano

KIROL OINETAKOAK ETA OSAGARRIAK

Barrenkalea 15-17. BERGARA.
Tf. 943 76 25 03

LONBIDE
OINETAKOAK

Bidekurutzeta 5

BERGARA

☎ 943 76 10 57



**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

**Mundukide Fundazioa-
rekin hilabete eman du
Eugenia Caceresek Eus-
kal Herrian. Kooperati-
bismoaz gehiago ikasi
eta bere herrian, Guate-
malan, ezartzeko bidera-
garritasuna aztertu nahi
izan du. Bide batez, Ber-
garan bere herrialdeari
buruzko hitzaldia ere
eman zuen hilaren
30ean Kultur Etxean.**

G. Hilabete eman duzu
hemen. Zertan aritu zara?

E. Mundukidek bultzatu
eta Mondragon Unibertsita-
teak lagundutako egitasmo
baten barruan Hegoameri-
kako hainbat herrialdetako
9 bekadun etorri gara: Mexi-
kotik, Nikaragutatik eta Gua-
temalatik bina eta Ekuado-
rretik, Perutik eta Colombi-
tik bana; guztiok area sozia-
lean lan egiten dugu.

Hainbat gauza egin ditu-
gu: batetik, Arrasateko koo-
peratibismoa sortu zuten
pertsonekin izan gara, bere
filosofia eta lan ildoaz ezagu-
tzeko. Bestalde, Euskal He-
rriko historiari buruzko es-
kolak ere izan ditugu. Ho-
rrez gain, interkanbio hone-
tan, esperientzien transmi-
sio bat ere izan da, izan ere,
sei enpresa kooperatibo
ikusitakoak, eta baita koo-
peratibak ez diren nekazari-
tza zein abeltzantza enpre-
sak ere.

Ikastolak ere ezagutu di-
tugu, unibertsitatean ere
egon gara, geure herrialde-
tan gertatzen denari buruz-
ko interesa duen jendeare-
kin ere bai... Eta hau guztia
oso aberasgarria izan da,
ikasketak soilik emango li-
gukeena baino ikuspegi za-
balagoa eskaini digulako.

G. Badago hemengo koo-
peratibismoa zuen lurralde-
deetara eramaterik?

E. Hemen, langilea koo-
peratiban lanera sartzen de-
nean, diru bat jarri beharra

EUGENIA CACERES

“Pakea eta Hirugarren Mundua” GKEko kidea

*“Guatemalan ez
da esklabu beltzik,
indigenak esklabi-
zatu zituzten”*



Eugeniak Guatemalari buruzko hitzaldia eskaini zuen Kultur Etxean.

dauka eta kopuru hori pen-
tsaezina da han, mekanis-
moak beste bat izan behar
du. Horregatik, formula
egokia zein litzatekeen bila-
tu behar dugu. Hori bai, gu-
re herrialdeetako esentzia
galdu barik. Hemen aurkitu-
tako gauzarik baliotsuenak
hartu eta hango komunita-
teetan nola aurkeztu ditza-
kegun pentsatu behar dugu

**“Hemengo
gauzarik
baliotsuenak
hartu eta hango
komunitateetan
zela aurkeztu
pentsatu beharra
daukagu orain”**

orain, eurek erabaki deza-
ten. Izan ere, gure lanaren
alderdi oso garrantzitsua da
erabakietan ez sartzea.

Guatemalan, esaterako,
ez dugu industriarik. 10 mi-
lio j pertsonako herrialdean
9 nekazariak dira, produk-
zio oso txikiko nekazariak.
Ez dago garapenik Guate-
malan, eta horrez gain, ne-
kazariei, indigenak hein
handi batean, ezin zaie esan
euren tradizio eta kultura al-
da dezatela industriaren ize-
nean. Identitate indigena
suntsitzea litzateke hori, oso
lotuta baitaude lurrera.

50 urtetan, nire herriak
bizi maila duin bat izatea
nahiko nuke. Dena den, bi-
zitza duin horrek, balore
komunitarioetatik aldentzea
badakar, pentsatzekoa da.

G. Indigenekin lan egi-
ten duzu, eta hauen mesfi-
dantza aipatu duzu.

E. Konkistak min handia
egin zigun. Ez dago esklabu
beltzik indigenak esklabi-
zatu zituztelako. Mende osoan
Guatemalako biztanleek ja-
san duten injustizia sortak
eta sarraskiek borroka eta
mesfidantza gogortzea era-
gin dute. Urteak joan ahala,
egoera zailtzen joan da:
1954.ean izua eragiteko bi-
dea familia burua hiltzea
izan zen; 70eko hamarka-
dan, gerrileroekin amaitzea;
eta 80koan, familia osorik
akatztea, eta familiarekin ba-
tera etnia. 80koan gertatuta-
koa etnozidioda izan zen.

G. Zertan dira 96an sina-
tutako Bake Akordioak?

E. Gerrilari dagokionez,
akordio bakoitzaren epea
bete egin du. Estatuari da-
gozkion akordioak, aldiz,
oso gutxi bete dira eta
hauek ere neurri txikian. Si-
natu zirenean, gobernu bat
zegoen indarrean, eta orain
beste bat. Nire ustez, gizarte
zibilak ez badu presiorik
egiten, ez dira ezertan geldi-
tuko sinatutakoak.

Presoen aldeko baraualdia apirilaren 14tik 16ra bitartean San Martin plazan

Amnistiaren Aldeko Komiteak euskal presoen eskubideak aldarrikatu nahi ditu

Datorren asteburuan egingo da baraualdia, eta AAKak euskal preso politikoek kolektiboak egiten diharduen gose greba mugagabea denona dela adierazi nahi du. Bestalde, Jose Miguel Gaztelu preso bergararra, 26 egun betetzen ditu gaur, eguakitza, gose greban.



Zubimendik eta Arietaleanizbeaskoak 40 eta 44 egun egin zituzten greban. Gazteluk 26 daramatza.

ARTXIBOA

Bergarako Amnistiaren Aldeko Komiteak baraualdia egingo du Bergaran apirilaren 14, 15 eta 16an euskal presoen Euskalerriratzea eskatzeko. Baraualdia plazan bertan izango da: eguakitzeko enkartelada eta gero hasiko da, 20:00etan, eta amaitu igandean.

Amnistiaren Aldeko Komiteak, euskal presoen eskubideak aldarrikatu nahi ditu, eta euskal presoek daramaten borroka denona dela adierazi. Ildo honi jarraituz, bertan parte hartu nahi duten guztiek Arran edota Pol-Pol tabernan eman dezakete izena.

TRATU DESEGOKIA

Bestalde, Jose Miguel Gaztelu preso bergararra gose greba egiten ari da Alcalamecoko espetxean. 26 egun bete dira gaur, eguakitza, grebari ekin ziola eta 10 kilo galdu ditu. Tentsioa ondo daukan arren, ez da bere zeldatik irtetzen. Martitzenean, hilak 4, hasi zen Gaztelu, Josu Uribetxerria eta Jose Luis Erosegiren aurka epaiketa. Gaztelu espetxetik Entzutegirako bidean zeramatela, ondoezik jarri zen eta botaka hasi. Ura edan nahi zuela eta eskuak

bizkarrean esposatuta izan ordez aurrean esposatzeko eskatu arren, Goardia Zibilek ez zioten jaramonik egin eta ezin izan zuen ura edan.

Defendatzen duen abokatuak gertatutakoa ikusita, Gaztelu eguaztenean Entzutegira ez eramateko eskatu zuen. Fiskala eta Terrorismoaren Biktimak elkarteak ez zeuden ados, baina, epaileak, onartu egin zuen.

HERRIKO HIRU SEME

Euskal preso politikoek kolektiboak 1999ko azaroaren 1ean gose greba mugaga-

bea hasi zuenetik, hiru dira atxikitu zaizkion bergararra: Mikel Zubimendik 40 egun eman zituen; Iñaki Arietaleanizbeaskoak 44 egun eta Gazteluk, 26 egun daramatza.

Euskal preso politikoek hasitako greba mugagabearen eskakizunak honakoak dira: euskal presoak Euskalerriratzea, zigorraren 3/4ak bete dituzten presoak kaleratzea, gaixorik daudenak kaleratzea, entrega eta estradizioak amaitzea eta Euskal Herrian bizitzeko eskubidea.

San Joxepe, hiru hilabetero, informazio orri bat kaleratuko du

Eguenean, martxoak 30, San Joxepe jubilatuen elkarteak kideek urteroko batzarra egin zuten. Batzarrean, ekitaldi egitaraua eta zuzendaritza batzorde erdiaren aldaketa landu ziren. Diputazioko eta udaleko ordezkariak ere izan ziren.

San Joxepe hamar ordenagailuko gela bat antolatuko du aurten, Diputazioa eta La Caixaren laguntzarekin. Bestalde, hiru hilabetero, informazio orri bat kaleratuko du. Kideek egingo dute, eta San Joxeperen 25 urtetako historia bilduko da.



Jubilatuak, urteroko batzarrean, batzordeko kideen erdiak aldatu zituzten.

Goiena Kooperatiba sortu dute euskara elkarteek



Jose Angel Mikeo, Jarduneko lehendakaria (eskuman), kooperatibako barne araudia eta estatutuak sinatzen.

Joan zen eguakitzean, martxoak 31, sortu zen Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarte. Sorrera batzarra, Euskadiko Kutxak Aretxabaletan duen Ojala etxean egin zen. Bertan izan ziren elkarte berriko kide eta bazkide nagusiak izango diren euskara elkarteetako ordezkariak, eta baita Debagoieneko euskarazko komunikabide-

etako langileak ere. Jardunek bost ordezkari izango ditu Goienako Batzar Orokorrean: Jose Angel Mikeo, Miguél Angel Elkoroberezi-bar, Iñaki Madariaga, Mikel Elkoroberezi-bar eta Estepan Plazaola. Azken hau izango da Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarte presidentea.

Eskualde osorako telebista (GoiTB) eta egunkari

itxurako astekaria (Goienkaria) abian jartzea dira Goienaren aurtengo erronkak.

Argazkian euskara elkarteak estatutuak eta barne araudia sinatzen. Ezkerretik eskumara: Esteban Arriaran (Laixan), Mikel Aranzabal (Txirritxola), Andoni Bengoa (Axtroki), Aitor Oro-bengoa (Arko) eta Jose Angel Mikeo (Jardun).

Mendi eta auzoen aurrekontua

Batzorde honek aurtengo aurrekontuetan daukan partida erre-ala 142.451.000 pezeta-koa da, eta ez 211.373.000koa argitaratu izan den bezala. Izan ere, ur kontsorziorako aurreikusitako 70 milioi pezetak batzorde honi atxekitu zaizkio hirigin-tzakoari beharrean.

Asteburuan plaza irekita autoendako

San Martin plaza irekitzea erabaki du udalak Ibargarai kaleko lanek irauten duten bitartean. Joan zen asteburuan proba gisa irekita egon zen, eta arazorik egon ez zenez, aurrerantzean ere irekita egongo da. Arrazoia, udalean jasotako kexuak dira: erdigunetik San Antonio zein Arrasaterako bidea hartu nahi izanez gero, bariantera, poligonotik, irten beharra zegoen.

J. Carlos Larrañaga eta J. Ignacio Igarza Urteko Enpresa Gizonak


Juan Carlos Larrañaga eta Jose Ignacio Igarza, Marcos Larrañaga eta Industrias Ibili enpresetako buruak hurrenez hurren, "Gipuzkoako Urteko Enpresa Gizon" izendatu zituen joan zen ostiralean, martxoak 30, Gipuzkoako Merkataritza Ganberak. Zortzigarren urtea da sari hauek banatzen direna, eta ekitaldia Kursaa-

lean egin zen. 1996. urtean, Javier Berasategik, TTTko buruak, izendapen bera jaso zuen.

Bestalde, Fagor Electrodomeesticos enpresak, Urteko Enpresa Esportatzaileari ematen zaion saria jaso zuen. Saria, Javier Gantxegik, Fagor Electrodomeesticosetako zuzendari bergararrak jaso zuen.



J. C. Larrañaga.



J. Ignacio Igarza.

"Urteko Enpresa Gizon", normalean, pertsona bakarra izendatzen den arren, aurtengo bi izendatzeak badu bere arrazoia, izan ere, arlo berean lan egiten

duten bi enpresa dira, eta orain 50 urte elkarri bizkarrak eman eta bide paraleloak jarraitu bazituzten ere, gaur egun, industria talde bakarrean bildu dira.

Gazte Asanbladako kideek akanpada egingo dute asteburuan San Martzialen

Bergarako Gazte Asanbladak, gazte akanpada antolatu du San Martzialen asteburuan, apirilaren 7tik 9ra. Asanbladak hiru helburu zehatzekin antolatu du akanpada: batetik, gazte mugimendua suspertzea; ohiko aktibitateak aldatzea, bestetik; eta, azkenik, Bergarako gazteek elkar ezagutzeari. Izan ere, Gazte Asanbladako kideek esandakoaren arabera, talde honetan dauden 60tik gora lagunek, ez dute elkar ezagutzen eta bileretan hori nabaritu egiten da, "batez ere ideiak proposatu edota zalantzak azaltzeko orduan, jendea lotsatu egiten baita". Bestalde, herritarrei lanean dihardutela erakutsi nahi diete asanbladako gazteek honelako ekitaldiak antolatuta.

AKANPADA SAN MARTZIALEN

Gaur, ostirala, poteoa egingo da trikitilariekin lagunduta, arratsaldeko 19:00etan



Gazte lokalaren aldeko prentsaurrea egin zen San Martin plazan iazko ekainean.

ARTXIBOA

San Martin plazan. Akanpadari dagokionez, bihar, larunbata, hasiko da. Plazatik irtengo da eguerdiko 12:00etan, eta bertara heldu eta kanping dendak jarri ostean, bazkaria izango da. Antolatzaileek esandako-

ren arabera, eurak arduratuko dira janaria eramateaz. Bestalde, arratsaldean jolas eta tailerrak egongo dira, eta gauean, afaldu eta gero, bideo emanaldia eta abesti, tertulia eta txokolatadaz osatutako gau belada.

Domekan, akanpadari amaiera emateko, eta ingurua txukundu ostean, San Martzialetik jaitsi egingo dira bertaratutako gazte guztiak eta jaiari amaiera alai emango diote San Martin plazan.

Ibargaraiko merkatariak kexu bezero kopuruak behera egin duelako

Ibargarai Hiribideko lanengatik kalea itxi egin dela eta, bertako merkatariak bildu egin ziren joan zen eguaztenean, hilak 29, udal txeko hainbat ordezkariarekin. Merkatarien iritziz bezero kopurua jaitsi egin da eta udalak errezenera jo du bidea ixten, izan ere, euren aldetik hainbat teknikori egindako kontsulten arabe-

ra, "posible da bidea guztiz itxi gabe kolektoreko lanak egitea: Urzelai harategi parean karriletako bat libre utziz, bertan dagoen aparkalekua kenduta. Eta aparkalekuak ez gutxitzeko, Seminarioa behin-behineko aparkaleku bihurtu daiteke".

Udalaren erantzunaren zain daude Ibargaraiko merkatariak.

Erantzun zabala Ikasle Abertzaleak deitutako ikasleen greba orokorrari

Ikasle Abertzaleak taldeak dei egindako ikasleen greba orokorra egin zen ostegunean, hilak 6. "Ikasleok abian euskalduntzea" lelopeko greba nazionalari honako ikastetxeetako ikasleak atxikitu zitzaizkion: Mariaren Lagundiko lanbide heziketakoak, Aranzadi ikastolako batxilergokoak, Ipintza institutuko batxiler-

gokoak eta Miguel Altuna institutuko lanbide heziketakoak.

Goizeko 11:30ean, manifestazioa egin zuten 150 inguru ikasleek lau helbururekin: unibertsitatean euskaraz egitea, edukin euskaldunak edukitzea, lanbide heziketa euskaraz egin ahal izatea eta erdal eredu kanporatzea, hain zuzen ere.

Berrigara

405 zenbakia,
2000ko apirilaren 7a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefona: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta elektronikoa:
berrigara@topagunea.com
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Edu Mendibil.
Erredakzioa: Monika Belastegi,
Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Uxue Zabaleta.
Harpidetzatzailea: Itziar Kortabarria.
Testuen zuzenketa: Alex Labaien,
Maripi Laskurain, Estepan Plazaola.
Erredakzio kontseilua: Eneko Azkarate,
M. Angel Elkorobereizbar, Alex Labaien,
Estepan Plazaola.
Komikiak: Unai Azkarate, Usua
Mendikute, Gorka Ortega & Jon Alvarez,
Bittor Rodriguez, Alex Ugaldede.
Kolaboratzaileak: Luis Mari Agirre,
Antxon Agirre Sorondo, Joxean Azkarate,
Juan Martin Elexpuru, Josu Okina.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk.
(Zubillaga. Oñati).

Azaleko argazkia: Juan Karlos Barrena

Tirada: 5.300 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Bergarako
Udala



Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jaurlaritzako
Kultura saila

gutunak

Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara.
Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

LABEGARAIETAKO INDUSTRIALDEA

Berrigarari (398. zenbakia) Altos Hornos Bergarako (A.H.B.) ELAk, Iñaki Arregi "Bixkai" izena agertzen delarik, igorri dion erreportai edo delakoak nahiko kezkatu utzi gaitu. Errealitate diferentetan bizi izan gara eta ala jarraitzen dugula ematen du.

Aipatutako artikuloaren funtsezko esanahia Plan Integral baten beharra plazaratzea dela dirudi. Inon ez dugu ikusten hitz horiekin zer esan nahi den. Zer da Plan Integral bat? Zer eremuri deitzen zaio eskumako aldea, Zabala, A.H.B.ko etxebizitzak, eliza, A.H.B.ko ofizina, Agirrebeñako etxeari...?

Delako Plan Integralak inguruko lan prekarietatea asko txikituko lukeela diote. Hemen gaituzte, eta hala egon gara beti LABekoak, orain A.H.B.n ematen ari denari aurre egiteko prest. Baina hori beste ixtorio bat dela dirudi. Hor ez da eskurik sartu nahi. Esan dezatela zenbat langilek jarduten duten egonkor A.H.B.n eta plantilakoak ez direnak. Esan dezatela zenbat mila kilometro egitera behartuak dauden langile horietatik batzuk urtean. Eta nolako soldatak jasotzen dituzten eta ze baldintzatan dauden. Eta zenbat langilekoa izango den A.H.B.ko plantila epe laburrean. Eta zelan betetzen ari diren eta beteko diren aurrerantzean hutsu-neak, langileen adina ikusiz. Egiaz, burutazio eta galdera maltzurak datozkigu burura.

Bestalde, argitu beharko digute Plan Integral horretan, nolako partehartzea eduki dezakeen langileen ordezkariak. Edo A.H.B.ko lantegiaren handitze baten moduan uler-tu behar dugu? Gure ustean, halakorik gertatzea ia ezinezko edo oso oso zaila ikusten dugu. Langileen ordezkariak eskatzen duelako erraztuko ote dira batzuen nahiak? Edo gehiegi konprenditzen ez dugun plan horren beharra kaleratzeak ez ote ditu komenientzi interes-tuak estaltzen? Guk gure zalantzak aitortzen ditugu, gurekin ezertarako ez delako kontaktu.

Langileendako hobekuntzarik egon ez denik, eta bereziki ekonomikoak, inork ez du ukatuko. Eta ELAk bera protagonista izan den atalak nabarmen erakusten dizkigu. Baina horretatik dena ezin hobeki egin dela eta dagoela esatetik oso urruti gaude, gure ustez. Eta aipatutako kezka, galdera batzuen bidez jarriko ditugu mahai gainean. Zergatik esaten dute komenioetan ahal zen gutxia lortu zela, inoiz egin ez bazen gehixeago estutzeko keinurik txikiena ere? Zergatik ez dira auseratu komenioaren bat "probisionalki" sinatu barik uztera? Agresio potente baten aurrean, ze egoeratan dago lantegiko langilegoa, erantzun konprometitu bat ematerako? Zer erantzun eman diezaiokegu elkartasunez, langileen artean ematen ari den zatiketa izugarriari? Betidanik A.H.B.ko langileek betetzen zizuten eginkizunak eta orain kontratekin gauzatzen direnak? Elkar-ta-

sunez jokatzera da ematen diren kontratazio finko apurrak sindikatu jakin baten eskutik pasatzea?

Noraino ailegatzen dira solidarioen konpromisoak 35 orduko astea, edo ordu estrak ematen dizkiguten bitartekoak, lanpostu fijo gehiago sortu ahal izateko? Ze defentsa egiten dugu desagertzen ari diren sekzioez? Sarritan entzuten dugu, sindikatoek langile fijoendako soilik lan egiten dutela eta arrazoirik ez zaiela falta, kasu batzuetan, garbi ikusten da.


AHBko LABeko sail sindikala

EHren MATIZAZIOA

Joan zen astean Alvaro Esparzaren aurka azaldutako pintadei buruzko albistearen, Udala Gobernu Batzordeak, gehiengo ekitza hori salatu eta kondenatu egin duela azaldu zen BERRIGARAN, Udaletik igorritako ohar batek zioenaren arabera. Dena dela, EHk azalpen hau eman nahi du, informazioa zehazte aldera: Gobernu Batzordean dauden EAJ-EAko 4 kideek aldeko botoa eman zuten eta EHko biak abstenitu egin ziren. Arrazoi hau eman genuen bozketako momentuan EHkoek: hemendik aurrera ez gara horrelako salaketetan sartuko, ez alde batera ez bestera, aurreko aldi zinegotzi berari egindako pintadak eta abar salatuz, hartutako erabakia onartu zenean, prentsan eta abar, oso interpretazio tendentziosoa egin zirelako.

Bergarako EH

tira biraka bittor rodriguez



atrebentzia ezpada

Lasa-Zabala kasuaren epaia bi hilabete barru emongo da jakitzera. Zer uste dozu gertatuko jakuela akusatuei?**Alfonso Zafrá**

Ni justizia egitearen aldekoa naiz, eta uste dot legiak betetzeko darella. Delituren bat egiten dabenak ordaindu egin bihar dau.

**Gloria Larrañaga**

Epaiketa politikua izan da. Bankillora ailegau diranian nahikua. Ez da justiziarik egingo, pertsonaje inportantiak dare eta.

**Paul Gallastegi**

Delituan parte hartu zeben danak egon biharko lirake bankilluan. Kartzelara jutun badira be, ez dabe denbora askorik egingo.

**Jaime Etxeberria**

Ez dot uste justizia inpartziala izango danik kasu honetan, eta biktimen alde egin biharrian, akusatuen alde egingo dau.

**Ane Garces**

Urteren batzuk jausiko jakue, baiña laster librauiko dittuela uste dot. Beste kasu batzuetan zer gertatu dan ikusi besterik ez dago.

**Karlos Etxaniz**

Zigor eredugarri bat jartzia nahiko nuke, baiña espedientia kubritzeko besterik ez da izango. Justizia ez da berdiña danondako.

bai, esan!



Gertaerak salatu edo txalotzeko: 943 76 03 97.
Identifikazioa beharrezkoa.

KALEAK TXAKURREN KAKAZ ZIKINDUTA

Aritz Bikuñak beste kexa bat azaldu nahi izan du sail honetan. Aurreko batean hainbat kotxek aulki erroberei zuzendutako espaloi zatiaren parean apar-katzeagatik kexu zen Aritz, eta, oraingoan, txakur kaken erruz herriko kaleetan ibili ezin izanagatik protestatu nahi du. Aritzek dioenez, kaleak oso egoera penagarrian egoten dira askotan eta gaizki iruditzen zaio txakurren jabeek txakur kakak ez jasotzea.

Udalak animalien inguruko araudia onartu ei zuen baina antza denez, askok eta askok ez dute hori errespetatzen eta herritar guztiok arazo hori jasan behar izaten dugu. Lerro hauen bitartez, Aritzek beharrezko neurriak har ditzala eskatu nahi dio udalari.

ARDATZA
Brikolaketa

Ateak eta zokaloak
Horma armairuak
Sarrailak eta manilak
Koadroen enmarkazioak
Era guztietako moldurak
Apalak
Kajoiak

Masterreka 4 behea
☎ 943 76 18 93

etxalar
kafetegia
kruasantegia

Boni Laskurain 4
943 76 50 68

PANA DE ROKIA
JATETXEA

Asteburuetan bertako
babak eta saiheskia

SALBADOR 10 **ELGETA**
Tf. 943 76 82 73



Gaspar

JATETXEA, TXOKOLATEGIA,
SELF-SERVICE-a

Barrenkalea 31

Tf. 943 76 20 02

BERGARA



Gozogintzan
aintzindari.

adituen esanetan

Makilaje iraunkorra

Makilaje iraunkorra deritzona lortzeko azalaren bigarren geruzan, dermisean hain zuzen, zelulak pigmentatu beharra dago, denboraldi baten makilajeak iraun dezan. Batez ere bekainetan (espresio nabarmentzeko), ezpainetan (loditzeko gehienetan) eta begietan (begiradaren sakontasuna handitzeko) erabiltzen den teknika da. Lehenbizi marrazkia finkatzen da, ondoren, orratzen birtartez, kolorea aplikatuz. Makilaje iraunkorra eta tatuajeak bereiztu behar dira: tatuajeak egiteko azalaren geruzarik sakonenean (hipodermisean) egiten da lan, eta pigmentoak eta teknika ezberdinak erabiltzen dira (tatuajeek gehiago iraunten dute). Mikropigmentazioan, berriz, ez da interesatzen marrazkia fijoia izatea, eta "lifting" moduko bat dela esan daiteke. Gaur egun asko erabiltzen den teknika da. Iraupenari dagokionez, beti ere pertsonaren azal motaren arabera izaten da: azal sikuetan koipetsue-




LUPE GARCIA

Dermoestetizista

"Batez ere bekainetan, ezpainetan eta begietan erabiltzen da makilaje iraunkorra, azaleko bigarren geruzan zelulak pigmentatuz"

tan baino gehiago irauten du honelako makilajeak. Erabiltzen dugun tonuak ere zerikusia izaten du horretan (zenbat eta argiagoa izan, orduan eta lehenago galduko da).

Makilaje iraunkorra, Europan, 1980ko hamarkadatik hona erabiltzen da batik bat, eta gaur egun oso aurreratuta dagoen teknika da. Lehen eskuz egiten zen prozesu guztia, banbu kanaberak erabiliz, eta gaur aparailu elektrikoekin egiten da. Oso teknika zehatza da eta, batzaz beste, hiru bat ordu nahiko dira bekainetan edo ezpainetan nahi dugun hobekuntza egiteko. Bestalde, zirujiaren erruz, titiburuetan markak baditugu ere mikropigmentazioa erabil daiteke eta baita azalean angioma arazoak (pigmentazio falta) ditugunean ere. Beraz, ezpainak handitzeko modu bakarra ez da silikona, eta bestelako infiltrazioak ere garestiagoak eta iraupen gutxiagoak dira. Gainera, makilaje iraunkorra naturalagoa eta kalte gutxiagokoa da.



Ezpainak loditzeko makilaje iraunkorra asko erabiltzen da gaur egun. ARTXIBOA

bergarako errota



BARRENA ERROTA

Lorenzo Altuna Gorosabel (36 urte) eta Agustin Altuna Bolinaga (57 urte) bizi ziren bertan, 1890ko errolda ofizialaren arabera. Biak nekazariak eta alfabetatu gabeak.

1895ean Agustin Altuna ageri da errotari.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean honela dio:

"Martin Altuna jaun bergararrak eskaria egin du, Ur Publikoen Aprobetxamenduko erroldan berea jasoa izan dadin. Deba ibaiako ura erabiltzen du Barrena errotan (Bergara) argindarra sortzeko. 800 litro ur jasotzen du segundo-ko eta 3,39 m.ko jauzia dauka.

Hori guztia ezagutzera ematen dut..."

1927tik 1933ra besterik ez zuen alta hartu irin-errotan publiko moduan, Martin Altunaren izenean. Bera izan zen azken errotaria; 1967an hil zen, 79 urte zituela.

Deba ibaiaren ezkerrean kokatua; hiru errotarri zeuzkan, eta, gastatutakoan, Martinek berak pikatzen zituen. %10 kobratzen zuen ehotze lanaren truke.

1935ean laga zion ehotzeari.

Izenak pentsatu eragiten digu noizbait eskupeten kainoiak zultzeko erabili izan zela, beste hainbat eta hainbat errota bezalaxe.

KOKAPENA: Elorregi auzotik 3 bat kilometrora, Arrasate aldera (azken baserria).

Antxon Agirre Sorondo



Luis Irizar sukaldaritzaz berbetan

Joan zen eguenean, hilak 30, **Luis Irizar sukaldarien maisua** izan zen **Gure Ametsa** elkartearen. Luis Irizarrek euskal sukaldaritzari buruzko hitzaldia eskaini zuen, eta Bergarako elkarteak antolatu dituen hiru hilabeteko jardunaldi gastronomikoei amaiera eman zieten.



Ezkondu dira Txomin eta Izaskun!

Txomin Santamaria eta Izaskun Iztueta ezkondu egin direla eta, kuadrilakoek bonako argazkia bidali digute. Bikote gaztea **martxoaren 15ean**, eguaztena, ezkondu zen arren, argazki hau martxoaren 18koa da, lagun taldearekin ezkontza ospatzeko afarian ateratakoa.



Agur Mundukiderekin etorritakoei

Mundukide Fundazioak antolatutako trukea dela eta, Hegoamerikako **Mexiko, Guatemala, Ecuador, Peru, Nikaragua eta Colombiako bederatzi lagun** Debagoienean izan dira martxoan. Zapatu goizean, harrera ez formala egin zitzaien udaletxean. Argazkian bost hegoamerikar **Victoriano Gallastegi**, alkatearekin, **Iñigo Alberdi**, Kultura Zinegotziarekin eta **Jose Angel Mikeo** Mundukidekoarekin.

DV

LAN-IRTEERA UGARI DITUEN PROIEKTUA HURRERA ZAITEZ!



Gure **Ikastoletan Batxilergoko** aukera guztiak eta **Heziketa-Zikloetan** eskaintza zabala:

Batxilergo Teknologikoa, **Eskola Politeknikoak** ikastoloi transferitutakoa eta bere aholkularitzapean garatutakoa.



Arizmendi

Larrin Plaza, 1
20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)

kontuola...

KONTUOLA, Idolaz elkarte, ANTZUOLA. Kazetaria: Marijo Deogracias **Maketazioa:** Iñaki Iturbe **Publizitatea:** Uxue Zabaleta **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Maripi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

Antzuolako hamabostekaria, 56. zenbakia. 2000 ko apirilaren 7a.

Zaharkinak baserririk baserri

Mila bat tresna zahar biltzea espero dute Aranzadikoek

Aurrera doa Gipuzkoako Foru Aldundiak Antzuolako udalarekin lankidetzan eta Aranzadi elkartearen laguntzarekin antolatatu duen zaharkinak proiektua.



Herriko baserrietako ondarea ezagutzera emateko asmoz, hamaika neskako taldea baserriz baserri ibili da baserriko tresnen gaineko datuak eta informazioa batzen, eta argazkiak ateratzen. Baserriarekin zerikusia duen guztia izan dute aztergai: lanerako tresnak, altzariak, erlijio kutsuko gauzak, argazki zaharrak, etabar.

Orain, berriz, Aranzadi zientzia elkarte etnografia taldekoek eta Andoni Azkarate herritarrek dihardute lan horretan, Fermin Leizaola buru dutela.



Andoni Azkarate ari da Aranzadikoei laguntzen.

IA BASERRI GUZTIETARA

Herriko baserri guztietara joatea ezinezkoa denez, berrogeita hamarren batera joango dira. Baserririk baserri ibiliko dira baserriko tresnak ikusi, aukeratu eta batzen.

Udaleko ordezkariak esan digutenez, baserriarrek oso harrera ona egin diote proiektuari eta etxeko ateak zabalteko ez dute inolako trabarik ipini. 1.200 bat pieza desberdin batuko direlakoan daude. Bilketa lanaren ondoren, pieza guztiak banan-banan garbituko dituzte. Aranzadikoen esanetan, 1.200 pieza baino gehiago izango dira, baina denak ezingo dituzte batu, garbitu eta erakutsi, eta pieza desberdinak ipintzen saiatuko dira. Martitzenean hiru baserritik pasa ondoren, 150 bat pieza sailkatu zituztela adierazi ziguten hiru arduradunek. Bilketa Basalde auzoan hasi zuten

eta era guztietako tresnak ikusi zituztela baieztatu ziguten. Bai eta, auzo horretako baserrietan oso egoera onean aurkitu zituztela gehienak. "Auzo honetan baserriarrek ardura izan dute neurri batean aintzinako tresnak gordetzeko".

Batutako gauzekin herriko artxibo historikoan geratuko diren fitxak egiteaz gain, erakusketa ere egingo da.

ERAKUSKETA FRONTOIAN

Maiatzaren 15etik 20ra tresnak pilotalekura eroango dira. Izan ere, erakusketa

egingo da maiatzaren 20tik aurrera, San Isidro egunaren ospakizunarekin batera. Arratsaldeko 18:00etan irekiko da. Ekainaren 11n bukatuko da.

PILOTALEKUA ITXITA

"Zaharkinak" dela eta, herriko pilotalekua ezingo da erabili maiatzaren 15etik ekainaren 15era.

Erakusketa ekainaren 11n bukatuko da eta orduan hasiko dira arduradunak tresnak jaso eta baserriarrei bueltatzen. ■

■ ■ ■
Erakusketa egingo da maiatzaren 20tik
ekainaren 11ra pilotalekuan
■ ■ ■


Matz-Erreka eta Bergarako Miguel Altuna elkarlanean heziketa zikloetan

Datorren ikasturtetik aurrera, Bergarako Miguel Altuna institutuko ikasleek goi mailako beste heziketa ziklo batean matrikulatzeko aukera izango dute. Izan ere, Matz-Errekak eta Bergarako ikastetxeak plastikoa eta kautxua lantzeko goi mailako heziketa zikloa jarriko dute martxan.

Aurreko Kontuolan Matz-Errekak bere pabilioi berria irekitzeko prest daukela adierazi genizuen. Oraingoan, ordea, kooperatiba honek duen beste proiektu bati buruzko kontuekin gatzozkizue. Ikasleei zuzendutako proiektu batekin, hain zuzen ere.

Bergarako Miguel Altuna institutua-ekin "Plastikoa eta kautxua lantzeko" heziketa zikloa jarriko du martxan, datorren ikasturtean. Izan ere, hauxe da Matz-Errekan egiten duten gauzetako bat. Eta bertako kudeatzaileak, Mikel Agirrezabalek, adierazi digunez "inguruotan ez dago honelako ikasketak eskaintzen dituen eskolarik. Hori dela eta, gurean aritzeko espezialistak aurkitzea ez da gauza erraza izaten".

Matz-Errekako langile guztien arte-rik ia erdiak ari dira plastikoaren sailean lanean "eta aurrera begira ere, arlo ho-



Eskolak Bergarako Miguel Altuna Institutuan emango dira. ARTXIBOA

nek gora egingo duelakoan gaude, baina horretarako langile ikasiak behar ditugu". Bergarako Miguel Altuna Institutuan mekanika, elektrizitate elektronikoa eta administrazioko goi mailako ikasketak egiten dira eta datorren urtetik aurrera, ziklo berri bat egongo da. Gainera, lantegietako langileak birziklitzeko egitas-moa ere badu goi mailako ziklo honek.

Maiatzean sinatuko dute hitzarmena Matz Errekak eta Miguel Altuna institutuak.

Baina aurretik, datorren asteko eguaztenean, apirilaren 12an, Matz-Errekak pabilioi berria inauguratuko du, eta apirilaren 15ean, inguruotako herritarrak gonbidatuko ditu atea zabalik eguna egingo dute eta.



Azkenean behera

Joan den astean bota zituzten azkenean Danok Bat elkarteko eta "Tellerianeko" eraikin zaharrak. Herriaren itxura aldatuz doala!



KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Zoruen kutxilatuta eta barnizaketa •

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Apaintetarako eta industriarako pinturak •
- Paper margotuak •
- Mokatak eta tapizatua •

GOROSTI
Taberna

☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA

“Euskal OFF 2050”, Hikaren antzezlan

“EuskalOFF 2050”.

Horixe da Hika antzerki taldeak apirilaren 15ean eskainiko duen antzezlan. Miren Gojenola, Belen Cruz, Josu Mujika, Anjel Alkain eta Loli Astoreka aktoreek 2050. urtean gertatzen den istorioa taularatuko dute: bikote amerikar batek Euskal Herrira egiten duen bisita kontatzen dute. Baina Euskal Herria museo antropologiko baten bitartez ezagutuko dute. Izan ere, euskara desagertu egin da eta munduan “espanglisha” erabiltzen da hizketan egiteko.

Hika taldeak hizkuntzaren normal-kuntza landu nahi izan du antzezlan honekin. Euren diotenez “gure seme-alabek euskaraz ikasi, pentsatu, bizi... egin dezaketen arren, soilik inguru euskaldunetan egin dezakete. Urteetako erasoak ordaintzen ari gara eta gaur egun, orain-



Hika taldea.

dik ere, zonalde ez euskaldun asko dau-
de”.

Hori dela eta, “Txalo Ekoizpenak, Iturri Kulturgintza Zerbitzuak eta Hika Antzerkiak, indarrak eta gogoak elkarturik eszenifikatu nahi izan dugu gai hau”.

Arlo komikoa eta poesia nahasten ditu Hika taldeak lan honetan, baina “helburu nagusia ikusleriari barrea eragitea da”.

Agurtzane Intxaurreagak zuzentzen du “EuskalOFF 2050” antzezlan.

INSERSOREN BIDAIK

Insersok urteroko bidaiak antolatu ditu, Gizarte Segurantzako elbarritasun edo erretiratu pentsiodunendako eta 60 urte bete dituzten alargun pentsiodunendako. Penintsulan zehar, Balear irletara, Kanarietara eta Portugale-
ra bidaiak edo kultura zirkuitoak antolatu ditu. Izen ematea apirilaren 13an amaituko da eta interesatuek udaleko Gizarte zerbitzura jo dezakete. Bidaien prezioa 32.600 PTatik (garestiena), 17.590 PTara (merkeena) izango dira. Gutxienez 6 egun dira eta gehienez, berriz, 15 egun.

ERRETZEARI LAGATZEKO

Zenbat aldiz pentsatu duzu erretzeari lagatzea? Eta zenbat aldiz entzun duzu “zaila” dela? Antzuolako udalak “Erretzeari lagatzeko” ikastaroa antolatu du. Sei astetan zehar, eguenero, egingo dira saioak eta apirilaren 27an izango da lehenengoa. Orduetgia auke-
ran izango dute interesatuek: 17:45-18:45 lehenengoa eta 19:00-20:00 bigarrena. Izen ematea apirilaren 17an amaituko da eta matrikula 1.000 PTA izango da. Interesatuok udaletxera jo dezakezue.

MENDI IRTEERA

Arrola Mendizale Elkarteak “Pagasari-Gañekorta” mendi irteera antolatu du apirilaren 16rako, domekarako. Bizkaia aldera joateko autobusa goizeko 08:30etan aterako da herriko plazatik eta itzuli, berriz, 18:00etan egingo da. Izen ematea apirilaren 11n, martitzenean, izango da, Arrola elkartearen, 19:00-20:00. Bestalde, martxoaren 30ean, eguenean, Arrola Mendizale Elkarteak, bere zuzendaritza berritzeko batzarra egin zuen. Zazpi kide berri sartu ziren zuzendaritzan: Bittor Arbulu, Juan Simon Aristi, Idoia Conget, Gorka Garitano, Juan Antonio Iturbe, Amaia Lazkano eta Zigor Perez.

GOSE GREBAN, MARTXOAREN 23TIK

Jose Luis Erostege, “Eltzikortak”, gose grebari ekin zion martxoaren 23an. Antzuolako Amnistiaren Aldeko Komitea, sinadura bilketa egiten ari da herriko talde eta pertsonen artean. Sei punturekin bat egitea eskatzen da: “euskal presoak kalean izatea, euskal nazio eraikuntzan euskal gizarte osoarekin batera parte hartu ahal izateko eskubide osoa dugulako” ere jasotzen da, baina baita sakabanaketarekin amaitzea eta gaixo dauden eta zigorraren 3/4k beteta dituzten presoek kaleratzea ere. Sinadura guztiekin mozioa aurkeztuko da Udalean.



Igor eta Txomin



Margoak orokorrean

ANTZUOLA BERGARA
609 157 131 609 150 164

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatze eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tf.: 943 76 64 23

GAILUR
taberna eta
gozotegia



Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 32



San Isidro egunean banatuko dira sariak.

Kukumarro lehiaketa

Txorimalo edo kukumarro. Nahi duen bezala. Kontua da San Isidrotan egiten den lehiaketa martxan dagoela jadanik. Nahi duen edonork hartu dezake parte, maiatzaren 19a baino lehen "ortu zaindari" bat eginez gero. 15.000 PTako sariaz gain, aurkezten diren guztiek sorpresa bat jasoko dute.

Interesatuak udaletxean zein liburutegian eman dezakete izena.

Sariak maiatzaren 20an banatuko dira San Isidro egunean, feria egingo den egunean.

Hiru talde egongo dira: 12 urtetik beherakoak, 12tik gorakoak eta hirugarrena, berriz, jubilatuenak. Animatu bada!

Zuhaitz eta zuhaisken erakusketa Elhuyarren eskutik

Kanpotik ekarritako eta bertan hazitako zuhaitz eta zuhaisken erakusketa antolatu du Elhuyarrek eta apirilaren 7tik 9ra bitartean egongo da erakusgai, udaletxean. Izenak, hostoak, loreak, 25 espezieren enbor mozketak eta bestelakoak ikusteko aukera eskaintzen du erakusketak.

Horretaz gain, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hamar zuhaitz mota uga-

rienen taula grafikoa ere jarriko da. Baina ez da hori izango guztia. Izan ere, honekin batera, "Sexua landareetan" diaporama ere erakutsiko dute. Jexux Lopez Irastorza, biologoak eginitako diaporama da hau.

Erakusketa goizez eta arratsaldez egongo da zabalik: 12:00-14:00 eta 19:00-20:30ak bitartean hiru egunetan zehar.

Okerrak zuzendu eta Antzuolako euskeran emon

1. Muturrez aurrera jausi eta hankia apurto naiz.
1.
2. Beste urtian goiz ikusi ginutzen edur malutak.
2.

Izen-abizenak eta telefonua:


idolaz ANTZUOLA **bertako hizkeria**

Aurreko Kontuolako erantzun zuzenak:

1. Lehengunian zintz egin neban.
2. Neri Mikel gustatzen jat.

Sariak: Hodei Aranguren eta Xabin Muruamendiaraz.

Eskuman erantzunak idatzi ostian, moztu eta laga Antzuolako udal liburutegian, **DATORREN EGUKAITZA BAIÑO LEHEN.** Erantzun zuzenen artian 5.000 pezeta eta "Antzuolako hizkera" liburuaren ale bat zozketatuko ditugu hamabostero.



Z *Zabalo Iturgintza S.L.*

Bidea eginez

Tailerra: Uzarraga bidea 10. Tf. 943 78 71 78

Erakusketa: Kalebarren 1. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haize egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak
- Bero-aurrezteak
- Bainugelak. Proiektuak momentuan egiten ditugu DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditentak bideratzen ditugu

ANTZUOLA

Apainketak eta isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
Tf.: 943 72 30 05
Bildegia: 943 78 70 40



JUAN CARLOS GARRERA

Atzegi

Gizartean berez dagokien tokia aldarrikatuz

Denok daukagu gure inguruan, auzoan, lanean, ikastetxean edo beste edonon, adimen urritasuna daukan pertsonaren bat. Gure eguneroko bizitzan, gure inguruan bizi den jendea da. Hala ere, beraien arazo hori dela medio, alde batera laga izan ditu gizarteak sarritan, eta bizitza berez gogorra izan daitekeen arren, are eta gogorragoa egiten zaie atzeratuei. Hain zuzen ere, pertsona hauek izaten dituzten arazoei aurre egiteko sortu zen Atzegi elkarteak duela 40 urte, beraien senitartekoen ekimenez.

Adimen urritasuna duen pertsona bat jaiotzen denean hasten dira arazoak beraien gurasoentzat, eta bizi guztian zehar, etapa ezberdinak igarotzen dituzten heinean, arazo berriekin topo egin behar izaten dute etengabe. Hori dela eta, askotan bakarrik sentitu daitezke guraso eta senitartekoak, sarritan ez dakite nora jo laguntza bila eta beraien seme-alaben etorkizunaz zalantza eta bildurrak izaten dituzte. Egoera honi aurre egiteko

sortu zen Atzegi, Gipuzkoako atzeratuen senitartekoen elkarteak, duela 40 urte. Kany Peñalba Atzegiko komunikazio arduradunaren esanetan, elkarteak ez du inolako antolatutako terapia eta horrelakorik eskaintzen, "terapiarik egokiena, familiak euren artean ezagutu eta bata besteari beraien esperientziak kontatu eta irtenbideak planteatzeko baita. Oso garrantzitsua da beraien arteko tratua pertsonala, zuzena".

Baina senitartekoez gain, badira bestelako bazkideak ere, hau da, bo-

londresak. Hauen artean, laguntza gisa urtean diru-kopuru bat ematen duten kolaboratzaileak daude, eta baita aktiboki, hainbat jarduera antolatzen parte hartzen dutenak ere.

ATZEGIREN LEHEN PROIEKTUA: PATRONATO SAN MIGEL

Atzegi sortu zen garaian, bazkide ziren gurasoek planteatzen zuten arazorik inportanteena, "beraien seme-alaba minusbaliatuen hezkuntza zen", Kanyren esanetan. Horregatik, orduko Gipuzko-



Gaur egungo Gureak S.A. tailerrak Atzegiren ekimenez sortu ziren duela 25 bat urte, nahiz eta gaur elkarte anonimo bat diren. Bergarako tailerrean, 18 lagun ari dira lanean gaur egun.

Pertsona hauentzako aisialdi talde bat ere badago Bergaran, Txolarte hain zuzen ere, eta irteerak, oporraldiak, txangoak, jaialdiak eta bestelako hainbat ekitaldi antolatzen dituzte urte guztian zehar.



ako Aurrezki Kutxak finantziatuta, Patronato San Migel sortu zen, era hone-tako arazoak zituzten neska-mutikoen-tzako ikastetxea hain zuzen ere. Baina denborarekin, eta beraien helburu gar-biena pertsona hauek gizartean inte-gratzea izaki, egokiagoa iritzi zitzaion bestelako ikastetxe normaletan ikastea-ri, eta borroka horretan murgildu ziren. Gaur egun, edozein ikastola eta ikaste-txeetan aurki ditzakegu adimen urrita-suna duten neska-mutilak. Integrazio-rako bidean pausu garrantzitsua zalan-tzarik gabe.

GUREAK: MINUSBALIATUENTZAKO TAILERRAK

Hezkuntza munduan lortutakoa garran-tzitsua izan zen arren, horri jarraipena eman nahi zioten Atzegotik, eta perso-na atzeratuei lan-munduko ateak ireki-tzea lortu. Hori, hala ere, nekezagoa zen, baina Atzegik bultzatuta, gaur egungo Gureak S.A. tailerrak martxan jarri ziren Gipuzkoa osoan, eta baita Bergaran ere, duela hogeitabost bat ur-te. Peñalbak BERRIGARARI esan dionez, gainera, "bergarar bat izan zen minus-baliatuentzako lan-munduko ateak ire-kitzeko bidean pertsona erabakigarria, eta beragatik izan ez balitz, ez dakit lor-

tu ahal izango genuen ere; bergarar hau Jose Antonio Zabala izan zen". Za-bala enpresa-gizona zen, eta oso ondo ezagutzen zuen enpresa-mundua. Bai-na adimen urritasuna zeukan alaba bat ere bazuen, eta pertsona horien arazo-ak ondo ezagutzen zituen aita bat ere bazen. Horregatik, esfortzu eta lan han-dia egin zuen Gureak Taldea sortzeko bidean.

Gureak tailerrak Seminarioan dau-de, eta gaur egun hemezortzi lagun ari dira bertan lanean: Elgetako bi, Ant-zuolako beste bi, Soralezeko bat eta hamahiru bergarar. Tailer hauetan, Fa-gor eta Goizper bezalako enpresenda-ko lan egiten dute, enpresa handi

hauek eskatutako piezak montatzen. Denetik egiten dute: kartoizko kaxak montatu, lapikoendako heldulekuak, panel elektronikoentzako piezak... Ber-tako arduradunen esanetan, oso langi-leak dira, eta ilusio handia jartzen dute beraien lanean, baina lantegi handietan ezingo lukete lanik egin, alde batetik, gizartea bera ere ez dagoelako gertatu-ta eta kontzientziatuta; eta bestetik, lan-tegietan pertsona hauentzako arrisku handiak daudelako.

AISIALDIA TXOLARTEREKIN

Lan-mundua eta hezkuntza ez dira, ha-la ere, integraziorako tresna bakarrak. Garrantzia handia ematen zaie Atzegi-

Atzegi duela 40 urte sortu zen, adimen urritasuna zuten pertsonen senitartekoen ekimenez, sortzen zitzaizkien arazoei denen artean aurre egin ahal izateko.

Aisialdirako txangoak antolatzeaz gain, kirola egiteko aukera izaten dute neska-mutil hauek, eta herri-arte-ko hainbat txapelketetan ere parte hartzen dute.



JUAN KARLOS BARRENA

tik bestelako arloei ere. Horrela, Txolarteren eskutik aisialdirako hainbat ekitaldi eta irteera antolatzen dira. Oporretan, esate baterako, kanpaldiak egin izan dituzte. Beraien kanping-denda eta bestelako traste guztiak hartu eta

Lizarrara joan ziren adibidez, iazko oporraldietan, argazkian ikus daitekeen moduan. Asteburuetakoa irteerak ere egin izan dituzte, hainbat toki ezagutzeko aukera izan dute asteburuetarako Txolartek antolatutako txangoetan.

Aisialdian, halere, txangoak eta irteerak baino gehiago ere egin daiteke, eta kirola ere praktikatzeko lagun hauek. Eskiatzera joan izan dira, herri arteko futbol partiduak ere jokatzen dituzte, baita antxitxika lasterketak ere...

GERO ETA ZERBITZU GEHIAGO


Kany Peñalbak esan zigunez, pixkanaka-pixkanaka Atzegiko partaideak, hau da, bazkide familiarak, zerbitzu berrien beharraz ohartuaz joan dira, eta behar horiei erantzuna ematen saiatu da beti ere Atzegi. Horrela sortu dira, beraz, hainbat zerbitzu berri atzeratuen senitartekoentzako. Hor daukagu, adibidez, Atzegi Babes Fundazioa. Fundazio honek 24 pertsonari ematen dio zuzenki bere babesa. 24 pertsona hauek ez daukate familiarik, eta bakarrik aurkitzen ziren. "Badira, baita ere, gurasoak iadanik adin nagusikoak izaki, beraien seme-alaba atzeratuen etorkizunaz kezkatutik, Babes Fundazio honi, beraiek hiltzen direnean, seme-alaba hauen kargu egin daitezkeen eskatu ditugunak ere", dio Peñalbak.

Honetaz guztiaz aparte, edozein gairi buruzko aholkularitza ere eskaintzen diete Atzegiko kideek beharra duten familia guztiei.<

Eta zu, ez al zara Atzegizalea?

Horixe da hain zuzen ere, Atzegik martxan jarri berri duen kanpainaren leloa. Eta horixe da Atzegik gizarteari, eta gutako bakoitzari, luzatzen digun galdera. Atzegizalea izatea, adimen urritasuna dela eta, bere bizitzan zailtasunak dituen pertsonari lagun egiteko prest egotea da, desorientatuta daudenean laguntzea, beraien defentsa eskasen aurrean laguntzea, beraien gaitasunak baloratu eta bultzatzea; hitz batean esateko, gizartean parte hartu dezaten kolaboratzea. Horregatik, Atzegik zera galdetzen digu: "Eta zu, ez al zara Atzegizalea?"

Ohituta gaude era honetako kanpainak ikusten eta entzuten. Bai Atzegik, eta baita pertsona hauen defentsan lan egiten duten beste hainbat taldek ere, sarri egiten dituzten gisa honetako sentsibilizazio kanpainak, eta badirudi ez dutela gizartea aldatzerik lortzen, badirudi ez gaituztela denok sentsibilizatzerik lortzen. Horregatik, oraingo honetan galdera zuzen bat luzatu digute, eta konpromezu aktibo bat eskatu nahi izan diote gizarteari, azken finean, gizartea osatzen dugun gizabanako bakoitzari.



Txakur leren lasterketa jokatu da Gorlan domeka honetan

Erlojuaren kontrako proban 50 partaide inguru izango dira

**Txakur leren lasterketa-
ren zazpigarren edizioa
izango da domekan, goi-
zoko 11etatik aurrera,
Gorlan jokatu dena.
Iazko edizioarekin kon-
paratuz, partaidetzak
gora egin du eta, antola-
tzaileek diotenaren ara-
bera, 50 partaide inguru
bilduko dira.**

Goyo Del Real madrildarra, azken hiru edizioetako irabazlea, izango dugu favorito nagusia domekan garaipena eskuratzeko. Berarekin batera Estatuko hainbat tokitatik etorritako partaideak eta Frantziatik etorritako zortzi lagun (tartean 50 urteko emakume bat) izango dira. Euskaldunei dagokienez, Itoiz Armendariz atxabaltarra, Jose Luis Berasategi hernaniarra (Pirenako zazpi ediziotan parte hartu duena), Larraitx Sorron zumarragarra, Igor Urzelai legazpiarra, Roberto Pro ermuarra eta Iñaki Muñoz oñatiarra izango dira irteeran. Muñozek cani-cross izeneko modalitatean hartuko du parte, txakurren atzetik korrika eginez hain zuzen ere. Bestalde, Axen Garitano bergararrak ezin izango du parte hartu, eskumako belauneko meniskotik operatu dutelako.

HAMAR KILOMETRO

Aurrekoetan bezala, lasterketa erlojuz kontra jokatu da eta partaideek 9,5 kilometroko ibilbidea bete beharko dute Gorlako kanti-
natik Trekutzera joan-eto-



Partaidetzak gora egin duenez, domekako proban 300 bat txakur izango dira Gorlan.

ria eginez. Esan bezala, probari 11etan emango zaio hasiera eta partaideak bi minutuko tartearekin ateratzen joango dira. Bergara Mushing elkarteko antolatzaileekin batera, Surra Irratizaleak taldeak domekako proban kolaboratuko du, partaideen denborak eta gerta daitezkeen bestelako gora-beherak helaraziz.

***“Partaidetzak
gora egin du,
eta horrek era-
kusten du pro-
ba hau hartzen
ari den indarra”***

JULEN NARBAIZA

Txakur kopuruaren araberako lau kategoria bereiztuko dira domekako lasterketan: Pulka izenekoan, txakur bat edo birekin etortzen direnak arituko dira; C mailan, 2-4 txakur dituztenak; B mailan 4-6 txakurrek tiratutako lerekin parte hartzen dutenak eta, azkenik, A mailan, sei txakurretik gorako leren laguntzaz parte hartuko dutenak. Mota guztietako txakurrak onartuko dira, nordikoak nagusi izango diren arren. Julen Narbaiza antolatzaileetako batek adierazi digunez, “seku-
la baino txakur gehiago izango da, 300 inguru, eta horrek erakusten du proba hau hartzen ari den indarra. Garai batean pare bat txakurrekin etortzen ziren askok txakur gehiago ekar-

tzen dituzte urtetik urtera, afizioa handitzen doa eta. Karrera mota honetarako alaskanoak oso aproposak dira, txakur nordikoen eta arrazako txakur bizkorren arteko nahasketa direlako. Lurrean jokatzen denez, beloziditatea da faktore inportantea eta Goyo Del Real primeran moldatzen da halako probetan, edurretan baino hobeto”.

Bestalde, txakurrekin zerikusia duen materiala eta bestelako gauzak ikusgai izango dira kantina ondoan domekan jarriko diren postuetan. Era berean, Jose Mari Canudas Pirenako antolatzaileetako bat Gorlan izango da, antolatzaileek gonbidatuta. Lasterketa ordubata eta erdiak inguruan bukatuko da.



Argazkian, iazko finalistak txapelketako antolatzaile eta babesleekin.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Usurbil

Lehen mailako jubenilak
Zapatua. 16:30. Agorrosin

Bergara-Amaikak Bat

Lehen mailako kadeteak
Zapatua. 18:15. Ipintza

Bergara-Hernani

Ohorezko kadeteak
Domeka. 11:00. Ipintza

SASKIBALOA

Bergara-Ordizia

Senior mutilak
Zapatua. 19:00. Kiroldegia

Bergara-Easo B

Kadete mutilak
Domeka. 10:30. M. Lagundia

ESKUBALOA

Bergara-Mutriku

Senior mutiak
Domeka. 12:15. Kiroldegia

ARETO FUTBOLA

Bergara-Eibar

Jubenil mutilak
Zapatua. 12:30. Kiroldegia

PILOTA

Bergara Hiria Txapelketa eta Deba Arroko finalerdia

Martitzenean, hilak 11, 19:30etan
Udal Pilotalekuan

PROFESIONALAK

Zabala-Mendia/

Muruamendiaraz-Irigoien

Matute III.a-Esnal

(2. mailako txapelketa)

Tolosa III.a-Cerro/

Oar-Arteta-Fuertes

Bihar, zapatua, 17:00etan
Udal Pilotalekuan

Bergara Hiria Txapelketa martitzenetik aurrera

Promesen kategorian eta lehen mailakoan zortzina bikote arituko dira lehen martitzenetik aurrera. Martitzenean, hilak 11, bi partidu jokatuko dira 19:30etan Udal Pilotalekuan; lehenbizi Etxabe-Zapirain eta Azpiroz II.a-Urdanis promesen mailako bikoteak izango dira aurrez aurre eta jarraian, lehen mailako bikoteak kantxaratuko dira, Azpiroz I.ak eta Bernalek Mikel eta Albizuri I.aren aurka indarrak neurtuko dituztelarik. Hurrengo jardunaldian, hilaren 18an, Ander Muguruza Bergara Kirol Elkarteko pilotariak debutatuko du. Peña-

garikanorekin bikotea osatuz, Amarika eta Bengoetxearen kontra jokatuko du bergararrak. Iazko edizioan Muguruzak txapela eskuratu zuen eta aurten ere garaipeña eskuratzea nahi izango du.

Bergara Hiria oso txapelketa erakargarria da pilotari gazteentzat. Izan ere, Bergara Hiria irabazteak prestijioa ematen die txapela eskuratzen dutenei, gazteen mailako pilotari onenak biltzen baititu txapelketak. Iazko edizioan nagusien mailan finalera heldu ziren lau pilotarietatik hiruk profesionaletan debutatu

dute dagoeneko, tartean Iker Muruamendiarazek.

Txapelketaren bosgarren edizio honek ikusmin handia sortu du pilotazaleengan eta, joan zen urtean gertatu zen bezala, martitzenero jokatuko diren partiduetan zaletu ugari izatea espero dute antolatzaileek. Lehenbiziko bi jardunaldiak, esan bezala, hilaren 11n eta 18an jokatuko dira eta hurrengo biak maiatzaren 2an eta 9an.

Finalerdia, berriz, maiatzaren 16 eta 23rako iragarrita daude eta finalak uztailaren 2an edo 6an izango dira.

Itzulia Bergaran

Astelehenean, Oñatin hasi eta bukatu zen Euskadiko Itzuliko lehen etapa hiru aldiz pasatu zen Bergaratik. Trope-lak hiru aldiz igo behar izan zuen Deskargako mendatea eta Antzuolatik Oñatira bidean zaletuek txirrindulariak zein itzuliko karabana ikusteko aukera izan zuten eguerdian eta arratsaldean. Herritar asko hurbildu zen tropela ikusteko. Aitor Silloniz Euskalteleko txirrindularia (argazkian) ia 5 minutuko aldearekin igaro zen Bergaratik helmugarako 28 kilometro falta zirela, baina ezin izan zion abantailari eutsi eta helmugan Massimo Codol (Lampre) italiarra nagusitu zen.





Labegaraietako futbito txapelketa

PARTIDUAK

ZAPATUAN BARRUAN

09:00. Uve Bikoitza-Ari Ari	Artusamak
10:00. Vacalouras-Artusamak	Uve Bikoitza
11:00. Fac-Mo(ko)lotov	Vacalouras
16:00. Amoskibar-Errotagain	Ortzi
17:00. Ortzi-Pinturas Bergara	Errotagain

DOMEKAN BARRUAN

09:00. Guadalest-Xurruapak	A Ze Flaxa Etxagi
10:00. A Ze Flaxa Etxagi-Shaktale	Antolaketa
16:00. Bayer-Sirimiri Eri	Pagomendi
17:00. Mongatxurak-Pagomendi	Antolaketa

EMAITZAK

Amilotx-Ari Ari	1-8
Urrutxurto-Buya	6-1
Xurruapak-Sirimiri Eri	1-1
Bildubarek Opel lam-Ion Autoak	14-0
Tom Cat Argandolas-Guadalest	1-12
Bayer-Fac	3-3
Artusamak-Txipiron	1-1
Errotagain-Azpeitxi jatetxea	3-1
A Ze Flaxa-Bar Canalejas	5-5
Irubide jatetxea-Ortzi	2-4
Pagomendi-Soropotroak	7-1
Shaktale-Mongatxurak	4-6



Kopa txapelketan aurrera

Joan zen astebukaeran jokatu ziren partidu guztiak kopa txapelketakoak ziren. Partidua irabazi zuten taldeek final zortzirenetarako txartela lortu zuten. Berdinketarekin amaitu ziren partiduetan, Xurruapak, Fac, Artusamak eta A Ze Flaxa taldeak sailkatu ziren, penalti jaurtiketei esker. A Ze Flaxak eta Canalejasek ligan erakutsitako maila onari eutsiz, partidu borrokatua jokatu zuten eta bosnako berdinketaren ostean, C multzoko liderrek aurrera egin zuten. Bestalde, goleadarik handiena Bildubarek eta Ion Autoak taldeen arteko partiduan (argazkian) izan zen. Bildubarek 14 eta Oeko emaitzarekin nagusitu zitzaion Ion Autoak taldeari. Sailkatutako taldeekin batera, Vacalouras, Pinturas Bergara, Uve Bikoitza eta Mo(ko)lotov izango dira final zortzirenetan.

mahoneroak



MIGUEL ANGEL SANZ
BKEko zuzendaritzakoa

Ondo ikusi nuen Bergara, zapatuan, Soduperen aurka. Berdinketa emaitza justotzat eman dezakegu, partidua ikusita, irabazi zein galtzea ez litzatekeelako arrizkekoa izango. 1 eta 0 aurreratu ondoren, Bergarak atzera egin zuen piskat, emaitzari eustearren, eta bizkaitarrek gure defentsaren despistek aprobetxatu zituzten markagailuari buelta emateko, lehen zatiaren amaieran eta bigarrenaren hasieran. Baina taldeak lan ona egin zuen berdinketa lortzeko eta Osorok bina-koa egin ondoren, taldeak erasotzen jarraitu zuen, zoritxarrez, zorterik gabe.

Dena den, taldea ondo borrokatzen ari da partidu guztietan. Ez dut uste arazorik izango duenik mailari eusteko eta ekipoari duen meritoa eman behar zaio, etxeko jokalariekin hor ego- tea ez baita erraza. Orain bi partidu jarraian kanpoan jokatu beharko du Bergarak, domeka goizean Santurtzin eta hurrengo astean Arenasen aurka. Biak ere partidu zailak dira. Ea zerbait positiboa ateratzen dugun...

Informazio hau babesle hauei esker:



OGIZUN

koop. elk. okindegia

San Pedro 21 BERGARA 943 76 20 49	Zubillaga z/g OÑATI 943 78 24 13
---	--



Irizar 2
☎ 943 76 14 95

JAUJA KIROLAK

talde federatuen emaitzak

FUTBOLA

Bergara 2; Sodupe 2
Hirugarren maila
Bergara 5; Urki 0
Neskak
Aurrera Ondarroa 2; Bergara 2
Lehen mailako jubenilak
Bergara 5; Beraun 1
Bigarren mailako jubenilak

Santo Tomas Lizeoa 1; Bergara 3
Ohorezko kadeteak
Bergara 0; Almen 2
Lehen mailako kadeteak
Amara Berri 4; Bergara 6
Infantilak
SASKIBALOA
Bergara 32; Ordizia 52
Senior neskak

Beasain 80; Bergara 73
Senior mutilak
Bergara 52; Andraitz 43
Jubenil mutilak
Atl. SS. 87; Bergara 28
Kadete mutilak
ESKUBALOA
Bergara 22; Hernani 20
Jubenil neskak
Elgoibar 31; Bergara 23
Jubenil mutilak

ARETO FUTBOLA

Bergara 1; Legazpia 11
Senior mutilak
Zaldibi 11; Bergara 2
Jubenil mutilak
PILOTA
Antzuola 1; Bergara 1
Deba Arroko txapelketa (jubeniletan 16-22 eta seniorretan 22-10)

Otsein Saria

Soduperen aurkako partiduan hauek nabarmendu ditugu:
Jokin Mendaratz 3 puntu
Gorka Dueñas 2 puntu
Oskar Maiztegi 1 puntu
Etxeko partidua bakarrik hartzen dira kontuan.

kronika senior nesken saskibalo taldea

Ordiziarrek nagusi

BERGARA 32

ORDIZIA 52

Bergara: Kristina Manovel (puntu bat), Miriam Olabarria (3), Olatz Laborda (11), Ana Belastegi (7), Maite Zumarraga (10) -hasierako boskotea-, Oihana Unamuno, Saioa Sasiain eta Maite Maiztegi.



Argazkian, duela bi aste Tolosaren aurka jokatu zuen Bergarako taldea.

Lehen zatian Bergarak maila ona erakutsi bazuen ere, bigarrean Iker Barberorekin entrenatzen duten neskek ezin izan zioten aurre egin ordiziarren joko biziari, eta azkenean 20 puntuko aldearekin galdu zuten. Saillkapeneko hirugarren postuan dagoen Ordiziak uste baino zailtasun gehiago izan zituen lehen-

dabiziko 20 minutuetan. Partidua berdindurik zegoela, lehen zatiaren amaieran bisitariak markagailuan aurreratu ziren, kontraerasoan hiru saskiratze lortu ondoren. Atsedendian sei puntuko aldearekin joan ziren aldageletara (16-22).

Jarraipenean, berriz, etxekoek jokoak behera egin zuten, Ordiziako entrenatzaileak bere jokalariei zonan denfenditzeko agindua eman ondoren. Bergararrek arazoak izan zituzten baloia mugitzeko eta berehala markagailuan tartea

handitzea lortu zuen Ordiziak. Bergararrek nekea nabaritu zuten atsedendialdian ostean eta ordiziarrek maila hobea erakutsi zuten. Emaizaren errua ezin zaio epaileen lanari leporatu oraingoan, bisitariak merezimendu osoz eskuratu baitzuten garaipena.

Joan zen asteko emaitzaren ostean, Bergara 13 taldeetatik saillkapeneko 9. tokian dago eta astebukaera honetan beraiekin berdindurik dagoen Donostiako Ingeniari Eskolako taldeari bisita egin beharko dio. Iker Barberoren arabera, "garaipena lortzeko asmoz joango gara, gutxienez saillkapeneko 9. toki ziurtatzeko". Liga amaitzeko lau jardunaldi besterik ez dira falta. Dena den, Bergara jokatzeko ari den liga probintzian ez dago mailaz jaisteko arriskurik. Barbero pozik dago bere jokalariek egindako denboraldiarekin, "kontuan izanik seniorretan lehen urtea dutela, ondo ibili gara esperientzia handiagoko taldeen aurka eta datorren denboraldian, jokalariek jarraitzen badute, behintzat, hobeto ibiliko gara".

ION ARANZABAL / Korrikalaria

"Karrera motzetan moldatzen naiz ondoen"

Herriko korrikalaririk onenetakoa dugu Ion Aranzabal (33 urte). Behobia-Donostia eta Azkoitia-Azpeitia maratoi erdietan bergarar onena izan genuen. Domekan Hendaia-Hondarribia proban izango da.

G. Zein distantzian gusturago?

E. Motzetan luzeetan baino hobeto moldatzen naiz. Hamar kilometro ingurukoak dira gehien gustatzen zaizkidanak.

G. Maratoi erdietan denbora bikainak egin dituzu...

E. Azken Behobia-Donostian ordu bate, 8 minutu eta 12 segunduko denbora egin nuen, baina piskat erreta heldu nintzen las-

terketa horretara eta ez nintzen gustura geratu. Hobeto gertatuta, ordu bate eta 7 minutuan egin dezakedala uste dut.

G. Maratonia, noizko?

E. Aurten Laredokoa korritzeko asmoa neukan, maiatza aldera, baina errespeto asko ematen dit maratoiak eta beharbada hurrengo urterako lagako dut.

G. Zenbat kilometro egiten dituzu astean korrika?

E. 90 bat. Horrez aparte, gimnasioa eta igeriketa piskat egiten dut.

G. Triatloian ere ibilitakoa zara.

E. Bai, eta oso oroitzen onak dauzkat, garai batean lagun talde bat ibili gine-

lako triatloia egiten. Baina triatloiak denbora gehiegi eskatzen dizu eta nahiago dut orain korrika ibiltzea, emaztea ere oso zaletua delako.

G. Korrika egitea ez da oso gogorra?

E. Gogorra da, baina norberak ahal duen mailan ibili behar du. Korrika egiteko fakultateak eta konstantzia ezinbestekoak dira.



1. ETXEBIZITZAK

SALDU

Pisu txiki bat salgai Antzuolan. Etxabea. 943 76 60 20 (gauze).

Pisua Fraiskozurin, ganbararekin. 103 m². 943 76 49 56.

Zubiaurre. 943 76 23 93.

Pisua salgai Zubietan. 943 76 12 61.

EROSI

Bergaran etxea erosiko genuke. 943 21 99 02.

Etxea erosiko nuke alde zaharrean. 943 76 38 25.

Etxebizitza erosiko nuke Bergaran. 943 76 09 99.

ERRENTAN EMATEKO

Laredon, hondartzan, pisua errentan Aste Santurako. 619 80 91 69.

Bungalow bat Torreveijan, udan. Hondartzatik gertu. 943 78 14 72.

ETXE KONPARTITUAK

Logela hartuko nuke

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK
Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK
Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

alokairuan, sukaldarako eskubidearekin. 943 76 46 64, goizez (Marilo).

Pisua konpartituko nuke. 667 52 48 98 (Andres).

2. GARAJEAK

SALDU

Antzuolan, Zurrategin. 943 76 64 00.

Bolu. 2 plaza. 616 049 865.

Antzuola, Kalegoi.

Deitu 943 76 47 16 telefonora.

Masterreka (Pertxa azpian). 696 460 406.

Ozaeta. 943 76 73 00.

Garajea salgai Bolun. 943 76 19 69.

Ibargarai. 1.500.000 PTA. 943 76 72 17.

ERRENTAN EMATEKO

Garajea alokairuan Boni Laskurainen. 943 76 47 67.

Garajea alokairuan Zubiaurren. Deitu 943 76 23 53 telefonora.

S. Marina. 943 76 41 88.

ERRENTAN HARTZEKO

Zubiaurren garajea hartuko nuke. 943 76 08 26.

3. LOKALAK

SALDU

Etxabe komertziala salgai edo alokairuan Ara-

nerrekan. 943 76 32 00.

EROSI

Lokal komertziala erosi nahi nuke S. Lorentzon. 300 m². 607 82 53 06.

ERRENTAN EMATEKO

Bolun (100 m²) eta Arruriagan (18m²) lokalak alokairuan. 606 96 23 80.

Mugertzako gainean 35 m²ko lokala alokairuan. 943 76 21 49.

Lokala alokairuan Martokan. 943 76 11 13.

4. LANA

ESKAINTZAK

Eskailera eta garajeak garbitzeko esperientziadun pertsona lanerako gertu. 943 76 35 38 (Antonio).

Mutil gaztea lanerako gertu. 616 664 851.

Mutil gaztea soldatzaile edo beste edozertan jarduteko gertu. 646 820 371.

Apunteak, lanak eta era guztietako dokumentuak ordenadorez. 646 095 338.

Esperientziadun ileapaintzailea; 26 urte. Deitu 629 483 847 telefonora.

Neska, administrari lanerako eta ordenadorez informea pasatzeko gertu. 943 76 73 11 (Garbiñe).

Etxeko lanak, umeak zaindu edo dendari lanak. 636 76 25 70.

Emakumeak etxeak garbitu eta edadetuak zaindu. 943 76 09 33.

Kizkur



Ileapaindegia
Estetika
Solariuma

Bolu 51. Bergara. 943 76 50 32

JOXAN
ARRAINDEGIÀ



Ibargarai 24
Tf. 943 76 70 29



ARRI
Industri
hornidura

Zubiaurre 30
Tf. eta faxa: 943 76 19 04.
Mugikorra: 656 78 64 84.

IKUSBI

ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK

Irala 5 ☎ 943 76 53 09

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txitxizotzak
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi 1 Tf. 943 76 39 53

Mujika
gorrolegia



Berezitasunak:
Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekalea, 3 BERGARA 943 76 10 34

Etxeko lanak, haurrak zaindu edo dendarri lanak. 943 76 60 56 (Joana).

Etxeko lanak edo plan-txa orduka. 943 76 54 82.

Txoferra lanerako prest, C eta C-1 gidabaimena eta garraioetarakoa dituen. 943 76 30 34.

Neska euskalduna goizez lan egiteko gertu. 943 76 23 41.

Klinika laguntzaileak gaixoak edo zaharrak zainduko lituzke. 609 77 01 33 (Asis).

Neska bat goizez garbiketarako egiteko gertu. 943 76 38 73.

ESKAERAK

Norbait behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943 76 52 79 (gauetz).

Neska behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. 943 76 05 55.

5. IRAKASKUNTZA

ESKAINTZAK

9-13 urtekoei mate, ingeles e.a. 943 76 33 68 (Maite).

Kitarra, soinu eta pandero klaseak ematen ditut. 943 76 45 73.

ESKAERAK

Pascal programako klaseak hartuko nituzke (injinerutza, 1. maila). 943 76 10 44.

Injinerutza 2. mailako C programari buruzko klaseak hartuko nituzke. 943 78 09 66.

Logseko 1. mailako fisika, kimika eta matematikako klaseak hartuko nituzke. 943 76 10 44.

UBlko matematika klaseak hartuko nituzke. 943 76 33 23.

6. IBILGAILUAK

SALDU

Renault Clio 16V. 93.000 km., egoera onean. 943 76 16 02.

Scooter Buxsy 49 cc motorra. 4.500 km. 943 76 34 80.

Opel Corsa 1.2 (SS-Y). 943 76 37 84.

Suzuki motorra. la berria. 130.000 PTA. 943 76 37 83.

Ford Orion. 300.000 PTA. Egoera onean. 943 76 54 19 (Raul).

VW Passat 1.6. SS-T. 943 76 57 71.

Citroën AX 1.4. SS-AB. 200.000 PTA. 630 750 099.

8. DENETARIK

SALDU

Aluminiozko 16" llanta berriak. 195/60 Vectra. 943 76 28 07.

Goiko kargadun Otsein garbigailua prezio onean. 943 76 29 60.

Hiru deposito: 8.000 litroko bat eta 1.800eko bi. 943 76 12 36.

Alpen Kreuzer karrodenda. 943 76 39 87.

16" llantak salgai, egoera onean eta merke. 943 76 54 19.

Bi heko logela oso bat eta egongelako armarua salgai. Estreinatuta gabe. 943 12 74 03.

Terrazarako 12 mahai eta plastikozko 50 aulki, prezio ona. 943 76 07 92.

Karro denda egoera

onean. 943 78 70 74.

Sukaldeko altzariak, harraska eta kanpaia salgai. 943 76 55 63.

EROSI

LPak erosten ditut. 943 79 76 90.

HARTU

Katakume arra hartuko nuke. 943 76 12 86.

GALDU

Belarritakoa galdu dut Zurradero eta San Antonio artean. 943 76 27 74.

Neskatiaren paparreko orratza galdu dut Zubiarre eta Labegaraite artean. 943 76 07 52.

Martitzenean, hilak 4, Donostiatik Bergararako autobusean sobrea hartu zuenak deitu diezadala (Maribi). 943 76 08 57.

BESTELAKOAK

Conor bizikleta urdina harrapatu didate Artzamendi 17an. Deitu 943 76 10 10 telefonora.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

MAKINARI-TRAZATZAILEA
Ibaizabal. 30747/3

PROGRAMATZAILEA
Arabar lautada. 30815/2

ELEKTRIZISTA
Bilbo. 30881/2

KOMERTZIO TEKNIKARIA
Gasteiz. 30946/4

ALEMANIERA IRAKASLEA
Ermua. 30948/2

ANTENA JARTZAILEA
Bilbo. 30980/2

HOTZ INDUSTRIALEKO TEKNIKARIA
Arabar lautada. 31002/2

SISTEMEN INFORMATIKAN DIPLOMATUA
Bilbo. 31073/1

INFORMATIKA IRAKASLEA
Bilbo. 31045/5

KOMERTZIO TEKNIKARIA
Bizkaia. 31060/2

KOMERTZIO TEKNIKARIA
Gipuzkoa. 31066/2

INFORMATIKAN EDO TELEKOMUNIKAZIO ELEKTRONIKOAN DIPLOMATUA
Bilbo. 31076/2

KOMERTZIALA
Bilbo. 27905/6

SALTZAILEA
Donostia. 28053/1

SUKALDARIA
Urola Kosta. 30374/4

PROGRAMATZAILEA
Gatzaga. 29277/3

AUTOSALMENTA
Donostia. 30534/3

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

Langai Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00era.

Telefona: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

LOKAL KOMERTZIALAK

alokairuan
Ibargarain.
30-80 m²

943 76 57 67
636 490 220

Pertsona behar da
ARRAINDEGAN
lan egiteko

606 962 380

GOZOTEGIAN

lan egiteko
pertsona
behar da

943 76 23 37

BEHEKO TABERNA


Menestra eta konejoa
dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tf.: 943 76 55 74

Martxan dagoen GARBITASUN ENPRESA

saltzen dut,
furgoneta eta
makinariarekin,
negozioaz arduratu
ezin naizelako.
Oso modu onean.
Hilabeteroko
irabaziak
450.000 PTA ziur.

Informazioa:
629 404 782



Ur~bide

ITURGINTZA

Zubieta 28, behea
BERGARA
943 76 00 57
630 261 617

Eleizalderen bizitza eta lana liburu batean

Datorren eguakitzean aurkeztuko da liburua udaletxeko pleno aretoan

Koldo Eleizalde bergararrari buruzko liburua aurkeztuko da datorren eguakitzean, hilak 14, udaletxean 19:00etan. Liburuak Eleizalderen bizitza eta lan oparoa biltzen du.

Lankidetzan bildumaren baitan kaleratu da liburua, bildumako zortzigarrena (Eusko Ikaskuntzak Euskal Herriko udal eta beste elkarteekin elkarlanean burututako ekintzak biltzen ditu bilduma honek).


Liburuan, Koldo Eleizaldek Eusko Ikaskuntzen alorrean izan duen garrantzia azpimarratzen da. Bestalde, politika, kazetaritza, literatura eta hizkuntzalaritzan egin zuten lanaren azterketa dela medio, euskararen aurreabidean izandako eragina antze-



Hil baino urtebete lehenago ateratako argazkia (1922).

man daiteke. Gainera, eta haren literatura lana zabala izan ez arren, XX. mendeko lehen hamarkadetakoz nazionalismoko intelektual organikoaren eginkizuna islatzen du. Aldi berean, abertzaletasunaren ikuspegitik, garaian euskaltasuna arriskuan jartzen zuten arazoaren multzoa biltzen du bere lanean.

Euskara zein gaztelaniazko bertsioa ditu liburuak, eta Koldo Eleizalderen bizitzako arloak sei ataletan daude bilduta: familia eta ingurunea, hizkuntza aspektuak bere obran, ideologia eta hezkuntza bere baitan, argazki bilduma bat, kazetari lanak, eta literatura obra eta Eusko Ikaskuntzarekiko harremana.



Animalien hatz marken erakusketa domekara arte

Animalien hatz markei buruzko erakusketa igandera arte egongo da ikusgai Kultur Etxean: zapatu eta domekan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Bertan, 47 animalien hatz markak daude, otso, hartz, sator, zaldi eta orkatzarena besteak beste. Hatz marka bakoitzak

dagokion animalia baten fitxa darama eta European dagoen mota honetako erakusketa hoberenatarikoa da. Ingurugiroari eskainitako astearen barruan kokatzen da, eta ekitaldi sortaren barruan, Mikel Urdangarinek kontzertua eskainiko du gaur, eguakitza, Kartzela Zaharrean gaueko 23:00etan.



Hatz marka bakoitzak dagokion animalia baten informazioa darama. Ondoko argazkian, hartza baten hatz marka.

Ugarrixa merenderoa

Elosuko bidean
BERGARA
943 76 28 92



URRATS

TABERNA


KOKTEL BEREZIAK
GAUETAN

Ibargarai 4
943 76 52 92

Usoa Pub



☎ 943 76 38 57
Irala 1



Kultur Etxean egongo den erakusketako jostailuetako batzuk mende hasierakoak dira.

Zaborretatik erreziklatutako jostailuen erakusketa

“Zaborretatik ateratako jostailuak” izeneko erakusketa egongo da ikusgai Kultur Etxean datorren astelehenetik, hilaren 16ra arte. Erakusketa ehundik gora jostailuz osatuta dago: trenak, mekanoak, motorrak, panpinak eta abar. Jostailuetako batzuk, zaharrenak, mende hasierakoak dira.

Debagoieneko Mankomunitateak, Udalako Ingurugiro Eskolarekin batera, zaborraren arazoari aurre egiteko asmoz antolatutako kanpainan kokatzen da erakusketa hau. Asteazkenean zehar 18:00etatik 21:00etara eta zapatu eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara.

Elgoibarko Musika Eskolaren kontzertua

Elgoibarko Inazio Bereziartua Musika Eskolako hiru taldek kontzertua eskainiko dute gaur, eguakitzan, 19:30etan, Zabalotegiko aretoan. Gazte Banda, Akordeoi Orkestra eta Dixiland Band etorriko dira, 50 ikasletik gora guztira.

Bestalde, Bergarako Musika Eskolako Metal Taldeak eta Orkestra Sinfonikoak kontzertua eskainiko dute datorren eguakitzean, apirilak 14, Urretxuko Secundino Esnaola Musika Eskolan.

Manu Muniategiandiakoetxea saritua

“Espacio con espejos” lanarekin Generacion 2000 lehiaketako pintura arloko lehenengo saria jaso zuen martitzenean Madrilen Manu Muniategiandiakoetxea pintore bergararrak. Lehiaketa egiten den lehenengo urtea da eta Obra Social Caja de Madrid-ek antolatu du. Bi milioi pezeta eta Mariscalek diseinatutako trofeoa jaso ditu Muniategiandiakoetxeak. Helburua, artean murgilduta dauden gazteen lana bultzatu eta suspertzea da.

salduenak martxoa

LIBURUAK

EUSKARAZ

1. OSTIRALAK
Jon Arretxe. Elkarlanean
2. HAU DA ENE ONDASUN GUZIA
Joseba Sarrionandia. Txalaparta
3. GRIMM ANAIEN IPUINAK
Pamiela
4. NIRE KULEROAK
Andu Lertxundi. Pamiela
5. AI AMA!
Arantxa Iturbe. Alberdania

ERDARAZ

1. LA FIESTA DEL CHIVO
Mario Vargas Llosa. Alfaguara
2. LA HERMANDAD
John Grishman. Ediciones B
3. VERONICA DECIDE MORIR
Paulo Coelho. Planeta
4. LO ES
Frank McCourt. Maeva
5. TIEMPO DE CONQUISTADORES
Alberto Vazquez Figueroa. Plaza y Janés
Iturria: Etxepare-Bilintx, Peñalba, Zangitu

DISKOAK

1. ATRAPADO EN TU SILENCIO
Doctor Deseo
2. SUPERNATURAL
Santana
3. GERNIKA ZUZENEAN
Mikel Laboa
4. MR. HAMBRE
Juan Perro
5. IKARO
Juan Carlos Perez
6. UNPLUGGED
Maná
7. BLOODFLOWERS
The Cure
Iturria: Etxepare-Bilintx, Zaiazko



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Dixula

BOKATAK
DAUZKAGU

Barrenkalea 32
Tf. 943 76 44 95

denborapasa

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

Ezker eskuma

1. Gizakiak erabiltzen dituen metodo teknikoek multzoa.
2. Amaitezinak. 3. Bizkaiko herria. Jupiterren satelitea.
4. Garai. Itsusi. 5. Zodiakoko zeinua. Bokal errepikatua. Bostehun. 6. Gauza. Belar idorra. 7. Nor atzikia. Pinu-mota. Erdi, hitz elkarketan. 8. Kontsonantea. Bizkaiko herria. Inguratu. 9. Norat atzikia. Irauten du. 10. Pasea. Portu.

Goitik behera

1. Penagarri. 2. Emaizak. Zilarra. 3. Harea ateratzeko hobi. Juntagailua. 4. Naizen honek. Kontsonantea. Musika nota. Kontsonantea. 5. Ogi ugari jaten duena. Musika nota. 6. Beharra. Barazki-mota. 7. Nafarroako herria. Iridioa. 8. Geltokiaren hasieran. Hitz motelak. 9. Kasik (bi hitz). 60 minutuko epea. 10. Gogoratu. Bat.

Soluzioa


10. Akordatu. 1. 9. Iria. Ordua. 7. Obanos. It. 8. Ge. Toteiak. 5. Ogiak. Do. 6. Lana. Arbia. 3. Karobi. Eta. 4. NIK. R. La. R. 1. Tamalgarr. 2. Emarriak. Ag.

Goitik behera

9. Bat. Dirau. 10. Igaroa. Kai. 7. Ak. Ler. Ert. 8. R. Ea. Bildu. 5. Libra. Do. D. 6. Gai. Lastoa. 3. Markina. Io. 4. Aro. Zantar. 1. Teknologia. 2. Amaigabeak. Ezker eskuma

LUMIA

bonofotoa




Miguel Angel Elkoroberezibar

Zein da Errotalde jauregia eta Santa Ana-bolu errotaren artetik pasatzen den erreka?

galde debalde

Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezuen!

1. Zein da Atzegiren aisialdirako taldearen izena?
A- Txolarte
B- Gureak
C- Xipizaro
2. Gorko Txakur Leren Lasterketaren zenbagarren edizioa da aurtengoa?
A- Seigarrena
B- Zazpigarrena
C- Hamargarrena
3. Kultur arloko zein bergararren bizitza eta lana bildu dira liburu batean?
A- Justo Garate
B- Koldo Eleizalde
C- Telesforo Monzon



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria, **Kontxita Arroiabere**ntzat izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Kontxitari! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Izagirre etxea** Galde Debalde: **1-C, 2-B, 3-C**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izen-deiturak: _____ Telefonoa: _____

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

Koipe Sabor
Gradu bateko oliba olio, litroa
445 PTA!
Super BMen beti eskaintzarik onenak!

Ane Miren Zabalak 18 urte ditu eta administraritza ikasketak egiten dihardu. Jardunen ere badihardu lanian, asteburuetako begirale moduan, eta bukatu berri dan "Bergara ezagutzen" lehiaketako aurkezle lanetan ere ibilli da.

Bergara ondo ezagutzen dozu?

Bueno, uste dot tabernak dirala hobeto ezagutzen ditutenak.

Baiña lehiaketa honek emongo zotsun Bergara hobeto ezagutzeko aukeria, ezta?

Bai, asko ikasi dot lehiaketa aurkezterako orduan, gainera bitxikerixa pila bat jakitzeko aukeria be emon dost.

Adibidez?

Egin giñuan galdera bat zera zan: ia zenbat parrokixa zeren Bergaran. Nik uste neban bi zerela, eta hara nun enteratzen naizen hamapiku darella.

Bergarako tokirik polittena?

Santa Marina inguru.

Bergarako pertsonaje bat?

Bitorianatxo, bergararroi jaixak ekartzen doskuna da eta.

Bergara herrixak berak ze ezaugarri bereizgarri dauka?

Bergarak ez dakit, baiña bergararrok harroputz famia eduki dogu beti, ez?

Eta fama hori egixa da?

Pixkat bai, baiña mutilletan batez be.

Maittasunagaittik egin dozu sekula zorakerixaren bat?

Ez; gainera ez dot uste sekula maitemindu naizenik.

Ze hartzen dozu kontutan bikote batengan?

Ez daukat bikoterik, baiña, gustatzen jat neri ulertuko dostan pertsona bat izatia.

Ane Miren Zabala

Zer ez zenioke sekula barkatuko zure bikotiari?

Neri plantauta, alde batera lagatzia.

Lehenengo aldixa bezalakorik ez dago?

Hori neretako gordeko dot.

Hobby bat?

Asko dauzkat, baiña batez be dantzan egittia eta kantatzia, nahiz eta oso gaizki kantatzen dotela jakin.

Gaba ala eguna?

Gaba.

Presumidia zara?

Bai, oso, gehixegi.

Modia kontutan hartzen dozu?

Bai, uste dot baietz.

Zure bertute bat eta defektu bat?

Bertutiak, oso alaia eta zabala naizela; eta defektua kotilla samarra naizela, baiña neri ez jat defektu bat danik pentsatzen.

Beti egin nahi izan dozun zeoze, baiña oraindik egin ez dozuna?

New Jersey aldera juatia gustauko jaten, Bon Joviren kontzertu batera.

Telebistako programarik gustokuena?

Kotilleo programak asko gustatzen jat, batez be "Lo que faltaba".

Eta aurkezlerik gustokuena?

Txetxu Ugalde.



Osasuna eta egoera fisiko egokia mantentzeko zerbitzu onenak:

- Elikadura biologikoa; barazkiak, fruituak, ardoak, etab.
- Osasuna berreskuratzeko produktu fitoterapeutikoak.
- Sendagile naturista: Iridiologoa, Santi Arrizabalaga. (K. zkia. 6166)
- Medikuntza tibetarra, Sewang Dabul sendagile tibetarrarekin.
- Kirolarientzako entrenamendu pertsonalizatuak; Etor Mendia, SHEE-IVEF-en lizentziatua.
- Izpi infragorriko sauna terapeutikoa; lumbago, ziatika, artrosia, etab.
- Shiatsu masaje japoniarra (digitopuntura).

Argaltzeko metodori aurreratuena:

TECNILINE OBEACTIVE metodologia (Jaione Yeregi dietistarekin)

Zarugalde 8 behea.
Tf. eta faxa : 943 79 56 38
ARRASATE



Inaugurazioa apirilaren 14an, eguakitza, arratsaldeko 7etan.

Aukera bio logikoa.



Bergarako tunoak, 1962

Garai batean Bergaran zegoen tunaren argazkia ekarri dizuegu oraingoan. Seminarioan zegoen Arrigorriagako Aita Iglesias musikazale amorratua genuen (Philips etxearekin bi disko ere grabatu zituen) eta berak sortu zuen Bergarako tuna, dominikotan ikasten ari ziren ikasleekin. Entsaiuak Seminarioan bertan (gaurko UNEDeko aretoan) egiten zituzten, eta tuna 22 inguru lagunek osatzen zuten. Horrelako taldeetan ohizkoak diren kantuak abesten zituzten, kitarra, bandurria eta bestelako instrumentuen laguntzarekin: "Clavelitos", "La tuna compostelana", "Bilbainadak" eta beste asko.

Goiko argazkia 1962ko Angiozarko jaietan aterata dago. Tuna herrian bertan eta auzoetako jaietan izaten zen giroa alaitzen, eta Antzuolara, Abadiñora eta beste hainbat herritara ere irteerak egin zituzten. Dominikoen estandarte-

arekin eta tunoen ohizko traje eta kapa beltzarekin, herriko "enbaxadoreak" izan genituen tunoak sasoi hartan. Zortzi bat urtez aritu zen tuna Bergaran eta handik gutxira desagertu zen. Horra hor argazkian agertzen direnen izenak, ezkerretik eskumara:

Aurrean: Jose Luis Calvo, Jose Ignacio Amasorrain "Xasio", Ramon Amasorrain, Tomas Garitano (kitarrarekin), Ignacio Alarzia (akordeoiarekin) eta Raul Calvo (panderoarekin).

Atzean: Javier Juaristi, Javier Zabaleta, Jon Marcó, Juan Luis Bikuña, Jose Ramon Murgoitio (kitarrarekin), Javier Belastegi (estandartea eskuan duela), Benjamin Lazkano, Aita Iglesias (atzerago), Jose Mari Etxeberria, Alfonso Basauri, Guillermo Navarro eta Juan Mari Laskurain (kitarrarekin).

Afariak ematen ditugu



Artekalea 14. Tf. 943 76 20 42



zumelaga

JATETXEA

54 urte zuen zerbitzura!







San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25




MAYA
 Oinetakoak Arropak Zilarra
 Osagarriak Tattoo Piercing

r a l a k a l e r a g o a z




Araba Etorbidea 5 •
Tel. / Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Araba etorbidea 20 •
Tel. / Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



Asunción, 1 •
Tel. / Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

expert 



Mitarte 3 •
Tel. / Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

FAGOR 

50 urte

gure bezeroen zerbitzura.

Eskerrik asko emandako konfiantzagatik